

# uztarrria

Azpeitiko herri aldizkaria || 2009ko abuztua || 109. zenbakia



## FESTAKEZ DU ADINIK

Carmen Loinazek eta Leire Larrañagak txupinazoa botako dute saninazioetan. Atzoko eta gaurko jaiez hitz egin dute 20





Loiola Auzoa 20  
20730 Azpeitia  
943 81 08 08  
943 15 79 01

| Modeloa                          | Km     | DATA  | PREZIOA |
|----------------------------------|--------|-------|---------|
| <b>CLIO</b>                      |        |       |         |
| CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85CV 5P   | 21100  | 2006  | 11.500  |
| CLIO III EMT 1 DCI 70 CV 5P      | 15000  | 2008  | 11.900  |
| <b>NUEVO CLIO</b>                |        |       |         |
| Nuevo Clio Clio Exception dCi 85 | 0      | 2009  | 15.250  |
| <b>KANGOO</b>                    |        |       |         |
| Kangoo Furgon Confort 1.5 dCi    | 122000 | 2007  | 7.500   |
| KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 CV  | 18000  | 2007  | 13.000  |
| <b>LAGUNA II</b>                 |        |       |         |
| LAG2 EXPRESSION 1,9 DCI 120 CV   | 150000 | 2001  | 5.500   |
| LAGUNA II PRIVILEGE 2.2DCI 150CV | 150800 | 2003  | 9.000   |
| LAGUNA II PRIVILEGE 1.9DCI 130CV | 105000 | 2004  | 10.300  |
| <b>LAGUNA II FAMILIAR</b>        |        |       |         |
| Laguna G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5P | 117586 | 2005  | 11.500  |
| LAGUNA FAM II EXP 1.9DCI 120CV   | 65700  | 2006  | 14.500  |
| <b>LAGUNA III</b>                |        |       |         |
| N. LAGUNA III DYN 2.0DCI 150CV   | 10500  | 2007  | 24.500  |
| <b>MASTER</b>                    |        |       |         |
| MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC | 229000 | 2004  | 6.000   |
| MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC | 164500 | 2006  | 12.000  |
| MASTER FURGON FURGON 35 LS 2.5 D | 174218 | 2006  | 12.500  |
| <b>MEGANE SEDAN II</b>           |        |       |         |
| MEGANE SEDAN II EXPRESSION       | 10.500 | 2.007 | 11.000  |
| <b>MEGANE II</b>                 |        |       |         |
| MEGANE II DYNAMIC 85CV 5P        | 22.699 | 2.008 | 12.000  |
| MEGANE II PRIVILEGE 130 CV 5P    | 20.000 | 2.007 | 13.500  |

| Modeloa                              | Km     | DATA  | PREZIOA |
|--------------------------------------|--------|-------|---------|
| MEGANE II CONFORT 15DCI 105 CV       | 120215 | 2.004 | 9.000   |
| MEGANE II 5P DYNAMIQUE 1.5DCI 105 CV | 52000  | 2.006 | 12.500  |
| MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3P       | 16954  | 2.006 | 13.500  |
| <b>MEGANE III</b>                    |        |       |         |
| Nuevo Mgane Berlina Expression       | 0      | 2008  | 15.900  |
| Nuevo Mgane Berlina Dynamique d      | 0      | 2008  | 18.000  |
| <b>SCENIC II</b>                     |        |       |         |
| SCENIC II CONFORT EXPRESSION 15D     | 80000  | 2006  | 12.000  |
| SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150CV       | 150    | 2007  | 17.000  |
| <b>GRAN SCENIC II (7pl)</b>          |        |       |         |
| GRAN SCENIC II 7PL                   | 12547  | 2007  | 17.500  |
| <b>Nuevo Scenic</b>                  |        |       |         |
| Nuevo Scenic Dynamique Tce 130       | 0      | 2009  | 21.000  |
| Nuevo Scenic Dynamique dCi 130       | 0      | 2009  | 22.700  |
| <b>Nuevo Grand Scenic</b>            |        |       |         |
| Nuevo Grand Scenic Dynamique dCi     | 0      | 2009  | 21.400  |
| Nuevo Grand Scenic Dynamique dCi     | 0      | 2009  | 22.000  |
| <b>ESPACE</b>                        |        |       |         |
| ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5P         | 110000 | 2005  | 17.000  |
| ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16V      | 84375  | 2006  | 18.500  |
| <b>KOLEOS</b>                        |        |       |         |
| KOLEOS DY PK2 2.0DCI 150CV 4X2       | 19850  | 2008  | 24.900  |
| <b>BESTE MARKAK</b>                  |        |       |         |
| Fiesta 1.3i Ambiente 5P              | 30000  | 2006  | 6.500   |
| PT Cruiser 2.0 16v. Touring 5P       | 40500  | 2002  | 8.300   |
| León 1.9TDI Sport 5P                 | 138000 | 2004  | 9.900   |
| Astra 1.9 CDTi Cosmo 5P              | 76593  | 2005  | 11.500  |

**ondo pasatu saninazioak!**

**bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran**  
Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.  
Finantziario aukera zabalak. Galdetu lasai.



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarría Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behe, (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.** uztarría@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 109.a (2009ko abuztua)  
**Urtea.** XI.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 635 75 76 04 / maite@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hileru  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Mailo Oiarzabal  
**Web orrialdea.** [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarría herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



**Uztarría** **Oharra.** Uztarría Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

**Bai Euskarari**



## 2009KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



04

### iritzia

**Inkesta.** Bidaiak Internet bidez hartzeko ohiturarik bai **13**

### mamia

**Kultur Mahaia.** Herriko kultur talde eta eragileek 2006an ekindako lana hasi da fruituak ematen **04**  
**Klik!** Itsas irudi ikusgarriak, azpeitiar urpekarien eskutik **16**  
**Tiobiboak.** Festarik festa eta herriz herri dabilta Sanz eta Soriano familiak **24**



24



34


### jakiteko

**Gloria Agirre.** 'Txikita de Aizarna' izenarekin, 25 urtez frontenisa izan zuen ogibide **34**

**Ba aL dakizu** Azpeitian oraindik ahari jokoa egiten deLa-eta, Afganistan deLa hori egiten duten beste tokia?  **Uztarría**

**egin zaitez bazkide Uztarrían**  **943 15 03 58**

**Herri aldizkariaz gain, Uztarríaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarría Komunikazio Taldeak liburuak-eta ere ateratzen ditu. Orain arte, hamabi liburu eta CD bat (ondokoa eta behekoak). Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide **gara** dagoeneko Uztarrían; eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarría 2009. urterako.



# Uztaren fruituak

Pixkana-pixkana hobetzen doa Azpeitiko kultur mugimenduaren egoera eta hori Kultur Mahaiak egin duen lan eskergaren ondorio da. 📌📍 **Nekane Zinkunegi**

**B**etidanik izan da Azpeitia kultur mugimendu handiko herria. Baina kultur talde askoren arazoez, euren arteko harreman ezaren ondorioz irauten zuten. Hortik etorri zen Kultur Mahaiaren sorrerarako ideia. Orain arte eman dituzten pausoez eta aurrera begirakoez hitz egin dugu Amaia Aranaga (Itsasi Euskal Kultur Taldeko kidea), Edu Arana (Izarraitz Txistularien Elkarteko kidea), Enekoitz Esnaola eta Alex Silva (Bide Ona Sanjuandegiko Kultur Elkarteko kidea), Mahaiaren Talde Eragileko kideekin.

Kultur Mahaiaren sorrera 2006ko udaberrian kokatzen du Enekoitz Esnaolak: "Udalak antolatu zuen horren inguruan hitz egiteko bilera bat". Baina "egungo funtzionamendua" beranduagokoa dela dio Alex Silvak. Esnaolak baieztatu duenez, oraingo egoerara heltzeko pauso dezente eman behar izan dituzte: "2007 bukaera aldera arte, bilerak noizean behin baino ez ziren izaten eta urte horretako abenduan erabaki zen 2008rako talde eragile bat sortzea, bileren artean zeuden hutsuneak bete ahal izateko". Gaur egun, herriko kultur talde denek, Udalak eta norbanako batzuk osatzen dute Kultur Mahaia. Horrez gain, juridikoki gauzatu beharreko kudeaketarako, "kultur talde bezala ere erregistratuta" daudela gogoratu du Edu Aranak. Hala bada, Kultur Mahaiaren zein talde eragilearen barne-arauiak zehaztu, behar eta ardatz nagusiak zein ziren aztertzen eta ikusten hasi



Sanagustin kulturguneko logo berria.

## ||||| SAN AGUSTIN |||||

### **IRUDIA.**

San Agustin kulturguneko berriak badu dagoeneko bere irudi adierazgarria izango dena. Mikel San Juanek egin du. San Juan Arte eta Diseinu Zentroko maisu eta Kultur Mahaiko Talde Eragileko kidea da.

### **UDAZKENERAKO PREST.**

Irekiera ofiziala noiz izango den oraindik zehazteko badago ere, herriko plazan egongo den kulturgunea datorren udazkenean martxan izatea espero dute Kultur Mahaikoek.

eta 2008ko azaroko batzarrean 2009rako plana eta barne-funtzionamendua onartu zituzten. Gainera, talde eragileko kideak, Kultur Mahaiko taldeetako ordezkariak izaten dira; urtero erdiak aldatzen dira, txandakako sistema baliatuz eta denen parte-hartzea sustatuz. Honen harira, "talde eragileko partaide izateak lan handia dakar, baina erabat borondatezkoa denez, ilusio handiz eta pozik egiten dugu", azaldu du Alex Silvak.

Sortzerako garaian ager zitezkeen zailtasunen inguruan hitz egiterakoan, txistularien elkarteko Aranak mundu berri eta ezezagun batean lan egin beharrak jendeari sortzen zion erreparoa aipatzen du: "Izan ere, Kultur Mahaiak agian ez dio bakoitzaren taldeari propioki ekarpen ikusgarririk egiten, eta norberaren taldean lan egiteaz gain, gainerako taldeez kezkatzea eskatzen du". Baina hala ere, "hasieran Udalaren gidaritzapean zegoen mahaia, borondatez osaturiko talde eragilearen eskuetan egotera igaro da eta gure artean adostasunez funtzionatzen dugu", gaineratu du Alex Silvak.

### **Taldeak "satelite eran"**

Amaia Aranagak Kultur Mahaiaren sorrerak eragindako onurez hitz egin du: "Lehen elkarren existentziaren berririk ez zuten kultur taldeak zeuden Azpeitian; eta orain, gutxienez elkar ezagutzen dugu eta guztiok dugu batauk zein besteak egiten dituen ekimenen berri".





Edu Arana, Enekoitz Esnaola, Amaia Aranaga eta Alex Silva, Kultur Mahaiaren Talde Eragileko kideak.

Guztiek azpimarratu nahi izan dute hori. Kultur Mahaiaren sorrerarako bileren aurretik eginiko zentsuan, 37 kultur talde zeudela ohartu ziren. "Satelite eran eta bakoitzak bere aldetik funtzionatzen zuen talde mordo bat", Edu Aranaren esanetan. Kultur mugimendu handia egon arren, azpiegitura ezaren eta komunikatzeko zailtasunen arazoez hor zirauten, eta kultur talde guztiek komunean zituzten arazoei modu erosoan eta errazean erantzuteko aukera emango zukeen Kultur Mahaiak eta Esnaolak adierazi duenez, Kultur Mahaiaren ezaugarri garrantzitsuena, "joera, filosofia, adin eta ezaugarri ezberdinetako jendearen bilgune bat" izatea da.

Egun, Azpeitiko kultur mugimendua arlo gehienetara hedatuta dagoen zerbait den arren, "garai batean Literatuzta egon bazen ere, orain literaturaren arloan egon daitezke hutsune gehien", aipatzen du Bide-Ona elkarteak Alex Silvak. Gainerakoan, Kultur Mahaiaren aurretik "musika, antzerkia, dantza, argazkigintza... bezalako arloen presentzia indartsua zen", dio Aranagak, "baina talde

bakoitzak bere erara lan egiten zuen". Honen aurrean, "arazo komunak identifikatu eta aztertzeraz jo genuen eta azpiegiturei zegokienean, San Agustingo proiektua 2009rako ildo nagusi gisa hartuta lanean hasi ginen", kontatzen du Esnaolak.

### San Agustin eta Soreasu

Hain zuzen ere, San Agustingo eta Soreasuko guneak dira Kultur Mahaiak azpiegituren arloan dituen proiektu nagusiak. "Ekipamendu ezin hobear hornitutako San Agustingo eraikinak, herriko kultur talde guztiei aukera paregabea eskainiko die", dio Aranak. Modu egokian antolatuta eta talde guztiek behar dutenean erabilgarri izango duten gune erabat dibertsifikagarria izango dela diote. Esnaolak aipatzen du urte honen amaieran irekiko dela ofizialki, baina udazken aldera zenbait ekimen bertan gauzatzeko prest egongo dela aurreikusten dute.

Eraikin honetako ekipamendua hobetzeko Espainiako Gobernuak 300.000 euroko laguntza emango du. Bestalde, Udalak

50.000 euro jarri ditu; teloa, tarimak –eszenatokia luzatzeko, hegaletan txikiak jartzeko edo eszenatoki gainean txikiak ipintzeko– eta aulkiak erosteko baliatuko dute diru hori. San Agustin beraren proiektuaz gain, kanpoko parke estaliarena ere martxan da eta abendu aldera amaituta izatea aurreikusten dute.

Soreasukoa, berriz, talde bakoitzak gune kultural baten baitan bere lokal propioa izateko nahitik etorri zen. Alex Silvak honela azaldu du: "Azken finean, San Agustinin herriko kultur talde guztiek izango dute eskura, baina ez da 'inorena' izango. Soreasun, berriz, ekimen publikoetarako lekua zein talde bakoitzak bere espazio propioa izateko aukera egongo da".

### Kultur komunitatearen webgunea

Azpeitiko kultur taldeen arazoan artean beste puntu bat, komunikazioarena zen. Aranagak aipaturiko "barne-komunikazioa eta taldeen arteko ezagutza" batetik, eta kanpora begirako komunikazioa eta entzutea, bestetik. Azken honi dagokionez, talde bakoitza▶

egungo aurrerapen teknologikoe ematen dituzten aukerak era partikularrean baliatzen eta hor energia pila bat gastatzen hasi ordez, Azpeitiko kultur komunitatea bilduko lukeen zerbait sortzea pentsatu zuten, eta hori irailera martxan jarri nahi duten kultur webgunea izango da. Esnaolak honela definitu du: "Beste edozein kultur hedabidek eskaintzen dituen aukerak eskainiko dizkie herritarrei eta, horrez gain, Kultur Mahaiko taldeen arteko barne-komunikaziorako baliatuko dugun tresna izango da". Kultur taldeen parte-hartzea lortzea da helburu nagusietakoa, eurak izan daitezen informazioaren emaitza. Honetarako, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundian diru laguntzak eskatuak dituzte.

Webguneak, besteak beste, ekimenak antolatzerako orduan bete beharreko fitxarriak eta ekimenak burutu osteko balorazio-erriak izango ditu. "Hala, edozeinek aurrez buruturiko jardueraren baten antzekoren bat antolatu nahi izan ezker, erreferentziak izango ditu eskuragarri", azaltzen du Silvak. Horrez gain, albisteen, bideoen, agendaren... txokoak ere egongo dira ikusgai. Eta webguneaz gain, herrian kartelak jartzea, lehen Uztarriak ateratzen zuen Eskuko Agenda berreskuratzea edota hedabideetara deialdiak luzatzea lirakeke komunikaziorako baliatu asmo dituzten tresnak.

### **Egutegi bateratua**

Herriko kultur egutegi bateratua osatzea ere nahi dute Kultur Mahaitik. Honen helburu nagusia, kultur jardueren oreka bilatzea eta zentzuzko kultur eskaintza bideratzea litzateke. Hau da, datei dagokienez, ez dadila kultur ekitaldiak jositako hilabete bat egon eta hurrengorako ezer ez antolatu; edota, espaziorik dagokionez, kultur jardura guztiak herriko plazan burutu ordez, Perez Arregi baliatzea tarteka; komunikazio hizkuntza euskara izan dadila; beti arlo bereko kultur eskaintza ez izatea... Bestalde, kultur jardura orok funtzio batzuk bete beharko ditu: antolatzaileez gain egon daitekeen jendea parte hartzera bultzatzeko modukoa izatea, esaterako.

Adibideon artean, Edu Aranak honakoa planteatzen du: "Soreasu eta San Agustín obretan dauden artean, Betharramdarretako aretoa edo pilotalekua baliatu beharra dago. Eta burutu nahi den ekintzaren arabera pilotalekuak ez du balio izaten, edo Betharramdarren aretoa jende aldetik txikiegi gera daiteke". Hala bada, ekimenen arteko era bateko zein besteko oreka bilatzeko, uztaile honetako

### **||| "Kultur taldeek elkarren berri izateko aukera sortu izana da ekarpen garrantzitsuenetako bat"**

**AMAIA ARANAGA**

**Itsasi Euskal Kultur Taldea**

### **||| "San Agustinen irekiera inflexio puntu garrantzitsua izango da herriko kultur mugimenduan"**

**EDUARDO ARANA**

**Izarraitz Txistulari Elkarte**

### **||| "Joera, filosofia, adin eta ezaugarri ezberdinetako jendearen bilgune da kultur mahaia, ugaria eta plurala"**

**ENEKOITZ ESNAOLA**

**Kultur Mahaiko Talde Eragileko kidea**

### **||| "Taldea eragileko partaide izateak lan handia dakar, baina erabat borondatezkoa da eta pozik egiten dugu"**

**ALEX SILVA**

**Bide Ona Kultur Elkarte**

batzarrean planteaturiko irizpideak onartuta geratu dira.

### **Udala, eragile garrantzitsua**

Esan bezala, Kultur Mahaia sortzeko lehen bileran Udalak deituta gauzatu zen eta, gaur egun, talde eragileko partaide da Udala bera ere. Izan diren udal gobernu aldaketan eraginaraz galdetuta, ez dela kultur mahaian aldaketarik izan aipatzen dute talde eragileko lagunek. Lauak ados daude Udala, herriarrian hurbileko erakundea izateaz gain, herriko kultur mugimenduko eragile garrantzitsu bat

dela esaterakoan. Kultur Mahaia bilgune plural eran definitzen dute eta horren adibide da Esnaolaren adierazpena: "Udal gobernu aldatzarekin, oraingo Udaleko Kultura batzordeburua talde eragilean sartu zen eta lehen-goak ere bertan darrai".

Kultur Mahaia izan duen bilakaeraz eta beronen egitekoaz ere hitz egin dute. Amaia Aranagare hitzetan, "herriko kultur talde guztiak dira Mahaiko partaide eta, ondorioz, guztiak beharrei erantzuten die Mahaia". Hala ere, Kultur Mahaia egiteko ez dela talde bakoitzaren kultur jardueren antolaketan sartzea azpimarratu nahi izan dute. "Guk ez dugu erabakitzen talde bakoitzak bere ekimenak noiz, non eta nola antolatu behar dituen", esan du Esnaolak. Eta Edu Aranak honakoa gehitu du: "Guk arazo orokorreki eta komunei irtenbidea emateko dihardugu lanean, talde bakoitzak bere kasa egin behar duen lan hori aurrez eta elkarlanean moldatu ahal izateko". Adibide bezala, talde guztiak datuak biltzen dituen zerrenda osatu izana aipatzen du Silvak: "Berez ez da beste munduko ezer, baina lehen kultur talde bateko norbaitek beste talderen batekin kontaktatu nahi bazuen, izugarriko konplexutasunak zituen; eta orain, osaturik dugun zerrenda horri esker, badaki une bakoitzean nora jo behar duen".

### **"Hankak lurrean"**

Hala ere, Kultur Mahaia urtean behin 'Kulturaldia' antolatzen du. Talde eragileko kideek nabarmentzen dutenez, herriko kulturako arloren batean egon daitezkeen hutsuneak betetzeko herriko taldeen jarduna ez bada nahikoa, orduan hartzen du Kultur Mahaia ekimenen batzuen antolaketa bere gain. Hori orain arte egindako lanari dagokionez. Hemendik aurrera "inflexio puntua San Agustinen irekiera" izango dela dio Aranak. Izan ere, 2008a eta 2009aren orain arteko zatia erelite-lanerako izan dute; barne-funtzionamendua zehaztu, ardatzak eta ildo nagusiak ezarri eta oinarriak finkatzeko aukera eman dien lana, hain zuzen. Hemendik aurrera, lan horren emaitzak ikusi ahal izango direla espero dute.

Hala, herritarrek ere izango dute Kultur Mahaia egin duenaren berri eta beronen lanaren lorpenez gozatzeko aukera ere bai. Beraz, epe laburrerako ikuspegiarekin jokatzeko asmoz daude, "hankak lurrean izanda", "aipaturikoak abian jarri" eta nahikoa omen dute oraingo. Gero ere, denborak markatuko die eta ibilbidearen norabidea.✘

# Berdintasunaren alde?

**A**sko hitz egiten da gaur egun berdintasunaren kontzeptuaz gure gizartean, batik bat gizonetako eta emakumezkoen eskubide berdintasunaren inguruan. Borroka honetan egin dira aurrerapenak, kontuan izanda XIX. mendean *sufragettes* izeneko mugimenduko emakumeak oinarriko eskubide bat, bozka eskubidea, aldarrikatzen hasi zirela.

Euskal Herrira inguratuz, jada XVIII. mendean Azkoitiko Zalduntxoak izeneko mugimenduak aldarrikatzen zuen berdintasunaren kontzeptua. Mugimendu honek Frantziako entziklopedisten eragin nabarmena izan zuen. Entziklopedista mugimendu honek eragin erabakiorra izango du ondoren 1789an hasiko den Frantses Iraultzan eta, hara nondik, bere aldarrikapenen artean *Égalité* agertuko da. Baina, galdetu dezakegu, zergatik eskatzen zuten berdintasuna? Desberdintasunak zeudelako? Eta hala baldin bazen, zer motatako desberdintasunak?

Berdintasunaren aldarrikapena ulertzeko kontuan izan behar dugu XVIII. mendeko Europan gizartea estamentuka (taldeka) banatzen zela: noblezia, kleroa eta herri xehea. Jaiotzek ezartzen zuten bakoitzaren kokalekua gizartean eta nobleziak eta kleroa eskubide guztiak bereganatuak zituzten. Berdintasuna, beraz, hutsala. Baina hau horrela al zen gure inguruan ere?

## Gipuzkoarren kaparetasun forua

Aurrekoan aipaturiko hiribilduen sorrera gogoratu, aipatu genuen nola garai hartako biztanleak nobleekiko askatasun gose zirela. Baina zer da askatasuna berdintasunik gabe? Horrela, hiribilduen sorrera biztanle guztien berdintasun juridikoaren aldarrikapenarekin lotuta agertzen da.

Hiribilduak nobleekin izandako tirabiretan garaile irten ziren eta horrek, burgesiaren agintea ezartzeaz gain, biztanleen arteko berdintasuna ezartzea ekarri zuen. Beraz,



markel mendizabal

III Istorio gazi-gozo honetan berdintasuna nagusi, baina oraindik desberdintzeko grina agerian

jaiotza lekuak ezartzen zuen kaparetasunaren maila soziala. Horrek askatasun osoa ematen zien hiribilduetako biztanleei, nahiz eta erregearekiko betebeharrak izan. Baina dena hain polita izan al zen berdintasunaren aldeko borroka honetan? Zoritxarrez ez, berehala hasi baitziren odol garbitasuna –arrazakeria dirudi baietz?– eskatzen, kaparetasuna izateko. Berrito ere gizateriaren bilakaeraren desberdintzeko balio izan duten hainbat elementu erabili ziren: erlijioa, familiaren jatorria, arraza...

Beraz, istorio gazi-gozo honetan berdintasuna nagusi baina oraindik desberdintzeko grina ageri. Gaur egun zibilizatu deitzen diogu gure buruari, baina desberdintzeko erabiltzen al ditugu oraindik

arraz eta familiaren jatorria, besteak beste gure inguruko biztanle berriekin? Erantzunaren arabera, bakoitzak erantzun desberdina izango du ondorengo galderarentzat.

Bukatu al da berdintasunaren aldeko borroka?\*





# Harea mugikorretan

**N**on amaitzen da informazioa eta non hasten da morboa? Edo alderantziz? Kazetariok muga ia ikustezin horren aurrean topatzen gara zenbaitetan, muga bera ere desberdina da kazetari bakoitzarentzat, eta kazetariaren atzean dagoen pertsona bakoitzarentzat. Baina muga garrantzitsua da, morboaren lurak harea mugikorrez beteak baitaude; erraza da sartzea, ez ordea ateratzea. Behin muga hori zeharkatzean, gainera, dena da libre, denak balio du. Eta morboranzko jauzia eginda, ahalik eta gauzarik morbosoenak ateratzen saiatuko da, gainera, kazetaria, horrela informazio gehiago, informazio hobea eskaintzen duela koan.

Joan den uztailaren 10ean sanferminetako entzierroan hil zen gaztearen irudiak datozkit burura. Egun hartan telebista kateak eta hurrengo eguneko egunkariak, ahalik eta irudirik gogorrena, momenturik latzena azaltzen saiatu ziren. Ea nork gogorragoa atera, nork 'errealagoa'. Adarrak gaztearen haragia zeharkatzen zuen une zehatza bilatu zuten goi eta behe, eta baita aurkitu ere, hiltzera doala dakienaren izua ikusi genuen orduan gaztearen begietan. Beste zenbaitek osasun zerbitzuen esku-ohetan etzanda zegoeneko azken agonia agertu zuen. Odoletan, ezer ulertu ezinik, bizi nahi zuela soilik, ez zuela han, horrela hil nahi.

Mutil haren gurasoez, emazteaz eta lagunez oroitu nintzen une haietan. Egunkarietan eta telebistan ikusitako irudi latz haiek izango baitira euren seme, senar edo lagun zen hartaz izango duten azken irudia. Maite duzun norbait hiltzea nahikoa ez bada, zer ote da, gainera, haren sufrimendua, haren zorigaiztoko patu bortitza zuzenean bizi beharra eta irudi hori erretinan betirako zintzelatua gelditzea?

Noski, irudi hori erreala da, hori da gertatu dena eta objektiboki kontatu dute. Baina, nire birramonak esaten zuen moduan, egia



olatz prat

III Egia denak ez dira esan beharrekoak; modu berean esango nuke, irudi guztiak ez direla publikagarriak

denak ez dira esan beharrekoak eta, modu berean esango nuke, irudi guztiak ez direla publikatzeko modukoak. Nire ustez hori ez da informazioa, ez du ezer berririk esaten, gizarajoa hil egin zen eta kitto. Hortik aurrerakoek, morboa bilatzea dute helburu, irudien eskubideak erosi eta audientziak igotzea, kompetenziak baino egunkari gehiago saltzea. 'Irudi Gordinenari Saria' eskuratzea.


## Hori nahi al dugu?

Horrelakoetan esaten da, "jendeak hori nahi du". Ea, zu eta ni jendea gara; zuk eta nik nahi al dugu irudi horiek behin eta berriz ikusterik? Kazetaritza onaren irudi al dira? Ez genekien zerbait esaten al digute? Jendeak, guk, hori nahi al dugu?

Jartzen digutena jaten dugu, jartzen duguna jaten duzue. Azken garaie-tan komunikabideen eragina eta boterea aldatzen ari denez, beharrezkoa da haiek modu arduratsu batean erabiltzea. Morboa jarri ezker, morboa jaten da, elikatu egiten da eta, falta ezker, abstinentzia sindromea eragiten du. Hori ez da, inolaz ere, komunikabideen lana. Informazioa eskubidea da, ez produktu bat. ✘







25  
larunbata

26  
igandea

30  
osteguna



ondo pasatu


# Saninaziyuek 2009

azpeitia

31  
ostirala

1  
larunbata

2  
igandea





## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Otordu gozoa, euskaraz, noski.

Gustua ematen du mokadutxo bat egitera joan eta menua euskara hutsean idatzita topatzea. Bejondeiela euskarari bultzada ematen dieten tabernari guztiei! [Uztarría](#)

**BEHERA.** Primerako kotxea; euskara, berriz, dotoreziarik gabea.

180 zaldiko auto beltza ez ezik, euskara ere ederki saldu du gidari honek. Martxa honetan euskararen normalizazioa ez dugu berehalakoan lortuko. [Uztarría](#)\*



## UZTARRIA.COM-EN

**BLOGAK.**

**Haritz Ibarzabal.** "Gaztetxeak bere egun handia ospatu zuen igaro den larunbat honetan (uztailak 18), izan ere, dagoeneko lau urte igaro dira atek lehenbiziko zabaldu zituenetik eta, horre-

gatik, ekitaldiz betetako egitarau zabalba prestatu zuten.

Festa 11:00etan hasi zen, hamaiketako egin bapo eta, jarraian, azken urteetan ohitura bihurtu den Urola ibaiko baltsa jaitsiera (...). Baltsen irteera Ber-

dura plazan zegoen kokaturik, Damaso Azkue inguruan amaitzeko asmoz, eta guztira hamar edo hamaika talde espero ziren, baina azkenean hamazazpi koadrila agertu ziren, beraz, arrakasta eduki zuen lehiaketa polit honek.



Mikel Aranburu.

## ESANA DAGO

III "Badakigu zaleek [igotzea] eskatzen digutela, kalean ez da besterik pentsatzen. Horrela ikusten dugu guk ere, baina pixkanaka joan behar dugu"

MIKEL ARANBURU  
futbol jokalaria

III "Madrilgo mutilaren harrapaketa bertatik bertara ikusi nuen. Inoiz ezin zara ohitu horretara"

JOXE RAMON  
LARRAÑAGA  
argazkilaria

Nahikoa lan izan zuten parte hartzaileek aurrerantza egiteko beraien baltsekin Urola ibaian zehar, nahikoa eskasian baizegoen ur aldetik, baina inor ez zen gelditu ahaleginik egin gabe (...).

**INKESTA.**

**Joan al zara ostiral arratsaldetako azokara?**

**Bai.** %37,18.

**Ez.** %62,82.

III **Orain dagoen galdera.** Festak herrian pasako al dituzu?\*



## Lehen presidentea, azpeitiarra



||||| Iñaki elortza |||||

**B**ixente Mauro Ezeiza Arsuaga *Mardura Txikia* izan zen Nafarroako Pilota Federazioaren sortzaileetako bat eta lehen presidentea. Bere garaian pilotaria izandakoa, aurrena 'joko berrian', guantearekin, eta gero erre-montean. *Mardura* Azpeitian jaio zen 1875eko azaroaren 8an; gurasoak Joxe Antonio eta Manuela Maurizia Ambrosia zituen.

Joko Berriko partidak 'joko'-etara egiten ziren eta bada bat nabarmentzekoa. Iruñean, 1907ko azaroan: Eugenio Eraso eta Juan Moia –gero erremontea asmatuko zuena–

*Mardura* eta Inazio Astizen aurka, hau ezkerrez. Azpeitiarra 5-1 galtzen ari zen, baina aurrelari jarri, bere laguna atzera pasa eta aurrena 5-5 berdindu, gero 7na eta azkenean 7-8 irabazi. Egunkarietan katedrak hartutako zaplastekoa majo nabarmentzen da, esanez historiara pasako zen horietarikoa zela.

Eskularrua utzi eta erremontean hasi zen. beste asko bezala, garaiko pilotaririk onenetakoa izatea lortuz. Iruñeko Euskal Jai Zaharra inauguratu zuenetakoa izan zen, estelarra jokatuz, 120 gramoko pilotekin, 1909ko urtarrilaren 24an: Pasiegito eta Ganborenak

50 Bixente Ezeiza eta Pepe Murillok 40, eta Takolo epaile nagusia. Gure Bixentek ez omen zuen arratsalderik onena izan.

Azpeitian jaio arren, Iruñean jarri zituen negozioak eta, lagun talde batekin, Nafarroako Pilota Federazioa sortu zuen, 1925eko irailaren 25ean. Bi urte pasa federazioa gidatu ondoren kargua utzi eta Ohorezko Presidente izendatu zuten. Bizitza guztia egin zuen pilotari lotuta eta Euskal-Jai eta Urumea pilota-enpresetako akziodun ere izan zen.

Joan den uztailaren 20an bete ziren 50 urte Bixente Ezeiza hil zela.✱

### IKUSTEKO! |||||



### ▲ AZKOITIAN TORERORIK EZ ZEGOELA?

Azkoitiak sona handia izan du pilotaren munduan, herriko hainbat seme figura handi izatera iritsi direlako. Pilotarien sehaska bezala ere ezagutu izan da Azkoitia. Kontatzera goazenak txistearen trazua badu ere, alboko herrian toreatzailea eta guzti izan zen. Julian Larrañaga *Floresito* torero azkoitiarra, eskuinetik bigarrena. ✱ Ainitze Agirrezabala ✱ Miren Seguroлак utzitakoa ✱




## |||UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...||||||||||||



### *Bideak egin eta egin*

**BARIANTEA.** Lanak hasi dituzte. Bideak egin eta egin jarraitzen dugu, baina nora joateko? Herri erditik trafikoa ateratzea ona da, ez dago dudarik, baina herri barruan autoa hartzen jarraitzen dugun bitartean alferrik puskatuko ditugu gure parajeak bide berriak eginez. Herrian trafikoa gutxituko denez, aprobetxatu dezagun aukera bizikletaren kultura indartzeko. Osasunak ere eskertuko digu!



|||||||||oihana elduaiei||||



### *Lau urte, ateak zabalik*

**GAZTETXEA.** Ez zen erraza izan lortzea. Lau urte bete dira jada lokal handi hura gazteen esku gelditu zenetik. Geroztik lan asko egin dute bertan, eta Gaztetxea gune zabala izatea lortzen ari dira. Bide horri segitzeko ere lan asko egin beharko da. Animo eta zorionak, gaztiek!



### *Arbasoen arrastoen bila*

**MUNOANDI.** "Antxintxike" edo "laistreka", zer egiten ote zuten Munoandi Burdinaroko herrixkako bizilagunek? Zer egingo zuen han "eurixe" edo "eurixe". Nola deitzen ote zieten Azpeitia eta Azkoitiaren artean dagoen herrixkan bizi ziren herritarrei? Ez ziren zakelak izango eta ezta

zapoak ere. Edo bai? Hori jakiterik ez dugu izango, baina gure arbasoak gutxigorabehera nola bizi ziren jakiteko modua izango dugu Aranzadi eta Iraurgi Lantzen egiten ari diren indusketei esker. Larri ibili, azkenean azkoitiar eta azpeitiarrak anai-arrebak izateko...✘



## INKESTA

bidaiak internet bidez hartzeko ohiturarik bai?

 Ainitze Agirrezabala


ENEKO ARAKISTAIN  
ikaslea



"Koadrilako bi lagunekin Londresera noa irailean eta

hegazkineko txartela Internetez hartu dugu. Ez da aurreneko aldia, beste behin ere Irlandarako hartu nuen. Denborarekin ibiliz gero, aukera onak egon ohi dira".

AINHOA ARANBARRI  
langilea



"Internetez bidaiak alternatibo merkeagoak lortu daitezke,

agentziekin konparatuta. Hegazkineko bidaiak gain ostatu eta aterpetxeetako egonaldiak ere hartu izan ditut".

SHEILA GOMEZ  
langilea



"Askotan hartu izan ditut bidaiak Internetez. Aukera asko ematen ditu,

hotelak aurrez ikusi ahal dira, baita jendearen iritzia jakin ere. Oso erosoa iruditzen zait Interneta horrelakoetarako".

ALBERTO JIMENEZ  
langilea



"Erosoagoa da Internetez egitea. Hotelen argazkiak eta kokapena

ikusteko aukera izaten da eta hegazkin bidaiak ere merkeago lortu daitezke. Pariserako bidaiak txartela erreserbatuta dut".\*

## 'Gripe Barcina'

"**C**errado por gripe Barcina", horixe da San Fermin Peñaren egoitzaren atean zintzilikaturik zegoen pankartak zioena, Iruñeko sanferminetan. Juergan genbiltzala norbaitek txoko hau aipatu eta bertara abiatu ginen. Parera iritsitakoan egin genuen topo mezuarekin. Horrelako lokal bat ixteko txerri gripe edo gripe *porcina* hori baino arriskutsuago dela pentsa genezake. Iruñea inguruan indartsu ibili dela uste dut gaitz maltzur hau. Hala eta guztiz ere, ez du sanferminekin amaitzea lortu, esker-rrak! Giro euskaldun eta herrikoia kolpatu omen du pandemia honek; baina dirudenez, antidotoa aurkitzea lortu dute umorea erabiliz. Izan ere, ikustekoak dira prozesioaren parodia edo peñek aurten eginiko pankartak ere.


Egunkariak irakurrita ikus dezakegu gaixotasun arraro honen mutazioak Euskal Herri osoko festetara iristen ari direla. Iruñeko kasuan bezala, batzuetan udaletxea izaten da gripearen iturria. Bilbon,



xabier otamendi

adibidez, txupinera gogor kolpatu du, baina hala ere neskak tinko eustea lortu du mutazioaren aurrean. Bestetan, aldiz, pertsona beldurgarri batzuk agertzen dira txosnetan ambientea moztuz, identifikazioak burutuz eta preso politikoen argazkiak bere lekuetatik kenduz. Besteak beste, Barakaldoko festetan edo azken Ibilaldian Galdakaon gertatu zen bezala.

Azpeitira ere iritsi dira gripearen zantzuak. Festa batzordeak lortu du hainbat ekitaldi antolatzea eta festak herrikoia izatea. Baina antza denez Udala gaitzaz kutsaturik zegoen, eta lana franko egin behar izan dute batzordekoek oztopoak gainditu eta festetako programazio osatua lortzeko. Ikusi egin beharko txosnetara ere iritsiko den gaixotasun gaizto hau, seguruenik idatzi hau irakurtzerako jakinaren gainean izango zarete guztiok. Hala balitz ere, ikasi dugu posible dela aurre egitea 'gripe Barcina'-ri eta beronen mutazioei.\*

galdetzen hasita, eta epaitegietako hanka-sartzea ikusita, herri-Lanetako akatsak zigortzen al dituzte?  Uztarria

## Bizikletako gogoetak



mirari garaia

"**G**aur goizean bizikletan ibili naiz. Aldapa gora eta behera nembilela, arnas-estuka, hainbat kontu etorri zaizkit burura.

Nire bizikleta berri eta dotorea astuna iruditu zait. Atzeko eserlekua kendu eta kanbioak bigundu eta errazago aldatzeko modua aurkitu behar dudala pentsatu dut.

Nekatuta, baina pozik ere sentitu naiz, aspaldiko asmoa, kirola egitearena, betetzen ari naizelako.

Bizikleta berria erosteko aukera ere aztertu dut. Baina handikeria azkar baztertu eta burutik kendu dut, berri-berria dagoelako. Nola egingo dut ba gastu hori, bizikleta ona izan eta krisi madarikatu honetan bete bete egonik.

Krisia. Krisia gora eta krisia behera.

Alabak datorren maiatzean jaunartzea izango duela ere gogoratu dut nire irteeran. Harrituta nago oraindik, duela egun gutxi gertatu zaidanarekin. Datorren urtean, hau da, 2010. urteko maiatzean, jau-

nartze kopuruari dagokionean, errekorra izango omen dugu Azpeitian. 150 ume inguru joango omen dira Elizarekin lehen hartu-eman izatera. Ez dut datua baieztatu, baina Kepa Susperregi erreto-reak, nire zutabe-lagunak, hobeto jakingo du horren berri. Ez al gaude ba sinismenen krisi sakonean murgilduta?

Niri dagokidanez, jatetxea hartzera joan eta lehenengo saiakeran... Pote!!! Dena beteta. Eta hemen nauzue berriro, zailtasun ekonomikoaren urte honetan, nire inguruan gertatzen ari dena ulertu nahian.

Bizikleta buelta amaitu eta neka-neka eginda etxera iritsi naiz. Bazkaria prestatu behar dudala pentsatu dut eta pozik sentitu naiz. Hozkailuan Azpeitian bertan hazitako tomate ederrak ditudala gogoratu baitut. Krisi garairako ba ote dago janari ederragorik tomate entsalada freskoa baino?

Ondo-ondo pasa ditzazuela San Ignazio festak. Bihotzez opa dizuet.\*

OTSOBELTZ



andoni salegi





## Nekea

**A**zpeitiko talde ezagun bateko ardura duna zen. Beti agur beroa egiten zidan. Egun batean, zerbait argitu nahian edo, hurbildu egin zitzaidan. Eskolako zuzendaria nintzela uste zuen. Kontserjea baino ez nintzela azaldu behar izan nion. Harrez gero, oso parean gurutzatzen garenean baino ez dit agur egiten.

Eskalafoiaren arabera baloratzen zaituztenak uste baino gehiago direlakoan nago. Gainetik daudelako zu baino gehiago direla uste dutenak. Ezer ez zarelakon hitza ere ukatzen dizutenak. Zer komeni zaizun zeuk baino

hobeto dakitenak, zeure iritzia jakin beharrik gabe. Deskuidatzen bazara zer pentsatu behar duzun ere esango dizutenak. Eta abar, eta abar...

Hori bai, dena borondate onenarekin egiten dute. Inoiz ez daukate beraien burua kuestionatu beharrik. Hanka sartzen badute ere, eta inoiz ez dizute onartuko honetan edo hartan sartu dutenik, maliziarik edo uste txarrik gabe izan dela esango dizute, horrek erru guztietatik salbuetsita uzten dituenaren ziurtasunean. Sekula ezer birplanteatu beharrik sentitu gabe bizi dira, edozein dela ardura,



### ||||||| Joxin Iturriotz |||||

edo ardura handienarekin ere. Zure gainetik daude, eta horrek edozertarako eskubidea ematen die edo, beraientzat gauza bera dena, zu eskubiderik gabe uzteko erreparorik ez daukate. Bai, horiek uste baino gehiago direlakoan nago.

Ezagutu nahi badituzu, etorri lasai, eta nire ingurukoak hatzamarrekin erakutsiko dizkizut. Eta barkatu hainbeste seinalatzean nekearen nekez lanari utzi eta asko eta asko seinalatu gabe gelditzen badira. Barkatu nekeak gaina hartzen badit.

Oporrak behar ditut. ✘

### ||| ZER DIO? |||||

## Lepo gozatu!

**J**aso dugu 2009ko sanazioetako programa. Etxeko atean sartu eta lehenengo gauza programa zabaldu eta argazkiak ikustea izan ohi da, eta gero agian testuak irakurri. Herritar gehienek zabalduko duten aldizkaria delakoan gaude, baina programa panpoxo horretatik haratago daude herriko festak.

Badira hainbat hilabete hasi girela Udalean biltzen, Festa batzordeburuak deituta. Herriko hainbat talde, eragile... egon dira ordezkaturik Festa Mahaian. Mahai honen egin beharra herriko festak antolatzea litzateke, herritarren nahiak eta gustuak asetuko lituzken egitarau bat egitea. Herriko hainbat talde eta eragile mahaian egon gara geure proposamen eta ideiak aurkezten, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa delako jai herrikoiak antolatu nahi baditugu. Baina, zer izan da Festa Mahaia? Aurtengoan ere hainbat herritarrok konpromisoa hartu dugu iazko urratsei heldu eta lanean jarraitzeko, horregatik egon gara Festa Mahaian, herri-

tarrentzako jaiak antolatzeko nahiarekin. Baina, Festa Mahaia herritarren proposamenen aurkezte eta iritzi trukaketa huts bat izan da, guk ez dugu izan egitarau eta programaren inguruko erabakirik hartzeko eskumenik. Erabakiak hartzea Udalarik dagokiola eta ez guri esan digute. Orduan, nori dagokio herriko jaiak antolatzea? Udalarik?

||| **Herritarrek izan behar dute protagonista herriko jaietan, festak antolatzetik hasita**

||| **Hainbat oztopo izan da bidean, baina herriaren nahia eta ilusioa geldi ezinak direla ikusi da**

Udaletxeko komisioa izan da erabakiak hartu dituenak. Festetako programa bateratua atera edo ez izan da eztabaidarik handiena, nahiz eta Festa Mahaian adostasun osoa egon iazko moduan programa bat atera behar zela. Festa Mahaian iritzia aintzat hartu gabe, komisioan hartu da erabakia. Programa bateratua izatea izan da bozkatuena, EAJ-ren aurkako botoekin. Honela, Festa batzordeburuari gustukoa ez zaion programa kudeatzea egokitu zaio, Festa Mahaiko nahiak aurrera eramateko komisioak behartu behar izan du.

Honakoa esan nahi diogu Festa batzorde buruari: entzun herritarrek eta utzi herriko talde eta eragileei herriko jaiak antolatzeko. Herritarrek izan behar dute protagonista herriko jaietan, festak antolatzetik hasita. Horregatik, guk herri mugimendutik lanean jarraituko dugu geure taldean, kalean, ikastetxean, Gaztetxean, elkartean, Festa Mahaian... Gure konpromisoa berresten dugu jai herrikoiei, parte-hartzaile, euskal-


dun eta parekideen bidean jarraituko dugula. Azpeitiko gazteek hainbat belaunalditan egindako lana eta botatoko izerdiaren garraipenak izan dira gure herriko jaietako hainbat ekintza: hasi txosna gunetik, 1.000 laguneko herri bazkaria, jolasak, txupinazoko hamaiketakoak, bakailao txapelketaraino... Hainbat oztopo eta traba izan dira bidean, baina herriaren nahia eta ilusioa geldiezinak direla ikusi da.

### **Parte hartzeko deia**

Bukatzeke, herritarroiei berezia egin nahi dizuegu jaietako ekintzetan parte hartzeko, eta bultzada berezi bat eman ekintza hauek aurrera ateratzeko lanean arituko diren herritarrei. Besarkada bat herritik Frantziako eta Espainiako espetxeetara eta urrunera, ez izan zalantzarik gure herriko jaietan gurekin egongo zaretela! Ahal duzuenok parte hartu eta ondo pasa! ✘


### ||||||| haizea egiguren |||||

(Festa Mahaiko kidea)



# Urpeko altxorretan

Urpean murgildu, bertako inguruaz gozatu eta arrainen artean, lasaitasunean, igeri egitea dute afizio hainbat azpeitiarrek. 📌 Ainitze Agirrezabala 📍 Esteban Kanpox





### ▼ URETARA.

Egipto, Itsaso Gorria. Urperatzeko prest. Uretan sartu aurretik debekatuta dute alkohola edatea. Horthaginak ondo ez dituenaminez hasten da presioa medio eta gaizki egindako enpasteak erortzeko arriskua dago. Urpekarien ekipo bakoitza 1.200 euro inguru kostatzen da.



### ▲ IKARAGARRIA!

Etiopia, Djibouti. Bertatik bertara ateratako argazkia. Balea marrazoa 12 metro luze izatera eta 1.200 kg pisatzera heldu daiteke. Plaktona jaten du eta ez da arriskutsua.

### ▼ LAU AZPEITIAK.

Cadaques, Katalunia. Koadrilan antolatzen dituzte urpekaritza irteerak. Argazkian lau azpeitiak: Juan Mari Otola, Josu Rezabal, Anjel Olaizola eta Esteban Kanpox.







### ▲ ZORRIAK KENTZEN.

Ataloea gora begira, geldi-geldi, jarri ohi da eta buztanbeltzak eta dontzeilak gerturaten zaizkio gainean dituen parasitoak kentzeko. Getariako Arratoi inguruan ateratako argazkia da.

### ► MARISKOALEPO.

Getariako uretan urpekaritza egitean marisko asko ikusten dute: nekorak, langostak, bogabanteak... Itsaskiak ur azaletik 10-12 metrotik beherako sakoneran egoten dira, bai baitakite apnean arrantza egiten dutenak hortik behera ez direla iritsiko. Oxigenoarekin arrantza egitea debekatuta dago.

### ▲ ISIL-ISILIK.

Arraia mosaikoak ikustea zaila izan ohi da. Zorionekoa da halakoekin topo egiten duena. Getarian aterata dago.



### ▲ ALTXORRA.

Urpean murgilduta sekulako altxorraz gozatu ahal da. Irudi ikusgarriak ikustez gain arrainen artean igeri egin daiteke.







### ▲ **ITSAS AINGIRA GAUTXORIA.**

Itsas aingirak egunez haitz artean ezkutuan egoten dira eta gauez ateratzen dira euren ezkutalekutik. Azpeitiarren esanetan, gauez urpean igeri egiteak xarma berezia du. Getariko K-Sub urpekaritza eskolan jaso dituzte ikastaroak. Argazki hau Getarian jasotakoa da.



### ▲ **SEKULAKO PIEZA!**

"Bizitzako esperientzia" izan zela dio Esteban Kanpoxek. Afrikako Djiboutin "majo gozatu" zuen azpeitiarrak. Itsasoko animalia asko ikusteko parada izan zuten eta balea marrazoekin topo egitean "zorte handia" izan zuela dio. Apnean ari da urpean igeri egiten, oxigeno botilarik gabe.✘

# CARMEN LOINAZ, LEIRE LARRAÑAGA

## saninazioetako txupinazoa botako duten ordezkariak

“Azkenean ez dago diferentziarik, ezta?”

Egiteko berezia egokitu zaie aurten saninazioetan, bietako inork espero ez zuena. Bi emakume, bi belaunaldi eta festak bizitzeko bi era. ✍️📧 Mailo Oiarzabal

**A**penas zuten elkarren berri orain dela aste gutxi arte, baina azkenaldian berriketan aritzeko aukera bat baino gehiago izan dute eta adinean elkar banatzen dituen 64 urteko koskak txikiago ematen du orain. San Inazio bezperan txupinazoa botako dute udaletxeko balkoitik Rafael Larrañaga, Gabino Aizpuru eta Ekaitz Agirrerekin batera. Carmen Loinaz ilusioz beteta dabil; Leire Larrañagari 'zera' gehiago ematen dio kontu honek. Hala ere, biak gustura ikusten dira elkarrekin solasean. Loinazek berehala ekiten die, gainera, gazte denborako kontuei...

**Orduan ere, txupinazoa botatzen al zuten?**

**Carmen Loinaz.** Nik baietz

uste. Zekorketak ere egoten ziren: bi zekorketa eta 'txarlotada' edo 'torero bombero' ikuskizun bat. Nik txupinazoa... Barre egingo didazu, eh, baina oraintxe 10-12 urte, alabaren etxera bizitzera joan nintzenez gero. Gainera, behin ere ez dit tiratu izan txupinazoak; eta orain, berriz...

**Leire Larrañaga.** Orain zeuk bota behar!

**Loinaz.** Pentsa ezazu, nora iritsi naizen ni.

**Baigerakoek eta Gazte Asanbladakoek elkarrekin botako duzue txupinazoa. Nola hartu duzue proposamena?**

**Loinaz.** Ene! Ni gelditu nintzen... txoka-txoka eginda. Maria Jesussek [Arregi] esan zidanean, telefonotik, 'ene, ez da egia izango',

### CARMEN LOINAZ

||| **Jaio.** 1921eko martxoaren 30ean. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Bizi tokia.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Erretiratuta dago.

### LEIRE LARRAÑAGA

||| **Jaio.** 1985eko maiatzaren 13an. ||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Langabezia dago.

esan nion; eta berak, 'bai, bai, Carmen, zuek meritu gehiago daukazue guk baino, zuek lan gehiago egin duzue eta'. Gauzak horrelaxe hasi ziren, eta gero neska gazte hau [Leire Larrañaga] ezagutu nuen.

**Larrañaga.** Guk ondo hartu dugu, bai. Erabaki genuen bi izatea, neska bat eta mutil bat. Eta

horrela, boluntario edo erdi-boluntario edo... Gurean inork ez nahi, berez, txupinazoa botatzera igotzea; lotsatu denak, gazteak denak lotsatu. Oporretara ere jotzen da jendea... Eta bueno, parean zegoena, azkenean.

**Loinaz.** Nik bat ere lotsarik ez, horrelako kontuetan. Hamazazpi urtean joan nintzen ni Benidormera. Pasatzen genituen hilabete eta erdi. *'El perejil de todas las salsas'* jarri zidaten izena, eh? Niri bat ere inporta ez.

**Larrañaga.** Ni izen horixe jartzeko beldurrez nago oraintxe!

**Gaur egun edadetuak eta gazteak bi mundu apartetan bizi direla dirudi. Festak aitzakia hartuta teoriarik apartek dauden bi mundu horiek**





Carmen Loinaz eta Leire Larrañaga, ezker-eskubi Baigera elkarteko tabernan, berriketa bizian.

**uztartuko dira. Horrelako ekimen gehiago egitearen aldeko al zarete?**

**Larrañaga.** Oso ondo iruditzen zait, bi mundu horiek uztartzea. Gainera, ezagutu ditudanetik, askoz hobeto.

**Loinaz.** Bai, niretzako bai. Ez gurekin bakarrik, beste batzuk badaude, gu baino pixkat gaztetxoagoak; egokiagoak, egia esan.

**Larrañaga.** Azkenean ez dago diferentziarik, ezta? Festak bizitzeko eran igoal bai; diferente bizi ditugu alde batetik, gauez-eta igoal gazteak gehiago ibiltzen direlako, baina bestela...

**Carmen, orain Leirek duen adina zenuenean, nolakoak ziren saninazioak, zer oroitzen dituzu garai hartakoak?**

**Loinaz.** Ba, beste giro bat. Zerkortak egiten ziren... Bezpera pasatzen zen, baina nik bezperako konturik ez daukat, ezer ez.

Lana egiten genuen etxean [Ondarbidetxean], zaharrena nintzen, eta zoramena izaten zen, izaten genuen lana. Akordatzen naizena da, pentsa ezazu, kotxeetatik: kotxe pila bat aparkatuta, kalean ez dakit non hasita eta Ondarbidetxe gora, Landetaraino.

**Larrañaga.** Garai hartan ez zen ba kotxe asko izango...

**Loinaz.** Zezenetara etortzen zen jendearenak ziren. Kanpoko jende asko etortzen zen. Bi urtetan, akordatzen naiz, eduki genituela toreroak ere, etxean. Baina harekin, ze lan... Beldurgarria zen. Eta gure amak esan zuen, 'ez, ez, ez, hau moztu egin behar dun'. Eta halaxe, bi urtez hartu genituen, baina gehiago ez.

**Ezkondutako aurreko urteetan saninazioak lanean ematen zenituen, beraz. Eta kalean bueltatxoren bat emateko tarterik ez al zenuen hartzen?**

**Loinaz.** Ezta, ezta, ezta... Ezta ezer ere! Ene!

**Larrañaga.** Ezkondu eta gero ere ez?

**Loinaz.** Ezkondu eta gero bai, ezkondu eta gero, ondo. Pelotalekuan jarri ginen bizitzen, eta ondo. San Inazio jaietan, nik ez nuen orduan ere txupinazorik ikusi. Badakit, bere amaren etxean San Inazio egunean genuela bazkaria, eta haraxe joan nintzen laguntzera. Orain ez, ez naiz gauza. Lehen alabari egiten nizekion, baina...

**Larrañaga.** Orain alabak egin behar zuri.

**Loinaz.** Bai, alabaren etxean bizi naiz eta.

**Kalean zer giro egoten zen? Banda militarra-eta etortzen omen ziren, ezta?**

**Loinaz.** Gauean musika bai, egoten zen. Banda militarra ere bai, Bilbotik etortzen zen. Horiek denak dauzkat gogoan.

**Plazan dantzarik-eta ez al zenuten egiten?**

**Loinaz.** Alde egizu isilik, plazan dantzan egin eta kongregaziotik bota ninduten!

**Larrañaga.** Nondik bota?

**Loinaz.** Mariaren Alaben kongregaziotik bota, mutilarekin dantza egin nuelako; eta gehiago sartu ez, ni. Eta bat ere penarik ez daukat.

**Leire, etxean inoiz entzun al duzu, amamak-edo kontatuta, garai batean festak nola bizi zituzten?**

**Larrañaga.** Ez, amama-eta ez dira hemengoak ere...

**Carmenek kontatzen dituen gauzekin ari zara ezagutzen, orduan?**

**Larrañaga.** Carmenek kontatzen dituen gauzekin ari naiz, bai. Pentsatzen dut ez direla igoal izango, lehengo eta oraingo festak, baina ez daukat ezer adituta.

**Loinaz.** Oso desberdinak, bai. ▶

“Txupinazoa botatzerako esan behar da: ‘gora saninazioak!’”

**CARMEN LOINAZ**  
**Baigerako kidea**



Carmen Loinaz.

► Nik hori ikusten dut. Ez dun bizi nire ama, ene Maria eta Jose!

**Emakumeen ikuspegitik, zer ezberdintasun nabarmenduko zenituzke, lehen-go eta oraingo festen artean?**

**Loinaz.** Nik ikusten dudana da, garai hartan ez nintzela irteten, baina badakidala seguru, orain saninazioetan bezperatik egoten den giroa ez zela egongo. Ezta pentsatu ere! Orain dagoen giroa partikularra da.

**Amonarenak ez baina, amak kontatutakorik ba al duzu?**

**Larrañaga.** Amak ez dit behin ere ezer esan izan, baina pentsatzen dut diferentea izango dela. Nire ama 21 urterako ezkontuta zegoen, umeekin, eta ez dut uste nik adina disfrutatzeke modurik izango zuenik. Hala esaten du, behin ere ez duela parranda bat bota, nik bota izan dudana bezala.

**Loinaz.** Ez, ezta nik ere.

**Larrañaga.** Horixe, erromeriara joaten zirela, eta askoz gehiago ez. Eta gainera gazterik ezkondu

zen eta umeak segituan ekarri zituen. Hari azkar bukatu zitzaiola esaten du berak. Orain, nire amak beti esan dit, eh, disfrutatzeke, orain nagoela garaian eta.

**Saninazioak gustuko festak al dituzue?**

**Loinaz.** Nik bai.

**Larrañaga.** Nik ez. Niri Karnabalak gustatzen zaizkit.

**Loinaz.** Ene, hori zeukanagu ederra, Karnabalak!

**Larrañaga.** Saninazioetan jende gehiegi egoten da. Gauza asko eta lan asko egoten da egiteko, gainera. Baina ondo pasatzen dut hala ere, eh?

**Saninazioetan egun edo unerik gogokoena?**

**Larrañaga.** Abuztuaren 1a esango nuke nik. Aurreko urtean bakailao lehiaketan ere hartu genuen parte Gaztetxetik eta egun polita izan zen, oso ondo pasatu genuen. 30a goizean ere ondo egoten da, bazkaria eta; baina gau aldean jende mordo eta etortzen da, eta azkenean gehiegi.

**Loinaz.** San Inazio egunean me-

“zeuk esan beharko duzu, gu ez gara-eta ausartuko”

**LEIRE LARRAÑAGA**  
**Gaztetxeko kidea**



Leire Larrañaga.

zetara joan, arratsaldean korridarra, semearekin...

**Zezenalea al zara?**

**Loinaz.** Ni? Amorratua, izugarria. Nik aurtan ere, nire urteekin, Iruñeko entzierrorik ez dut utzi, eh? Zezenak era denetara gustatzen zaizkit, harrapatutako guztiak ikusten ditut.

**Larrañaga.** Ni ezta bat ere. Ez korridak, ezta...

**Loinaz.** Korridetara egunero joaten naiz. Abonoa daukat hogei-taka urtean. Oraintxe ordaindu dut, 570 euro.

**Larrañaga.** 570 euro? Zertarako? Hiru egunerako? Eskerrak ez zaizkigun gustatzen!

**Gaur egungo saninazioetatik zeozer aldatuko al zenukete, gehitu edo kendu?**

**Loinaz.** Nik ezer ez, nik dauden bezalaxe utzi.

**Larrañaga.** Bueno, uste dut gauza asko daudela hobetzeko, baina... Nik korridak-eta kendu, neuri ez zaizkit gustatzen eta horixe kenduko nuke, eta diru hori dena beste zeozertarako erabili.

**Loinaz.** Bueno, denak ez daude diru horretan, eh?

**Larrañaga.** Ez, ez. Eta nik errespetatzen dut, eh? Ez zaizkit gustatzen, ordea, eta neure gustuko festak egiten hasita, ba...

**Inoiz ez zitzaizuen tokatuko txupinazoa udaletxetik ikustea, ezta?**

**Larrañaga.** Ez, eta ez daukat gogo handirik. Puf, hauek aurrean jartzen badira nahiago. Niri lotsa ematen dit. Lotsa eta nerbioak, nerbiosia jartzen naiz-eta segituan.

**Loinaz.** Aitu: txupinazoa botatzerako esan behar da ‘gora saninazioak!’

**Larrañaga.** Ba nik ez dut esango, ez dut esango. Niri denak hala ari zaizkit, zer esan behar dudana galdezka, eta nik ez dudala ezer esan behar esaten diet.

**Loinaz.** Aitu: ‘Gora San Inazio, gora Azpeitia eta gora azpeitiarrak!’

**Larrañaga.** Zeuk esan beharko duzu, Carmen, gu ez gara-eta ausartuko. ✘

*lora-etxea . . .*

**Kimubat**

**ASTE BUKAERAN IREKIA**

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

arte eta diseinu ikastegia

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
**matrikula urte guztian zabalik**

**LUBA**

aholkularitza  
laborala, fiskala, kontablea

**- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA**

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



# Tonbola berria eta betikoa

**2009ko saninazioek tonbola izango dute: Uztarriarena, Erdi kalean. Ekimen berria Santio egunean jarri zen abian eta uztaillaren 30ean eta 31n ere irekiko ditu atea. Zer tokatuko ote da?**

**A**zpeitiko beste hainbat talde, elkarte eta eragilek egiten duen bezalaxe, Uztarriak ere bere partea jarriko du San Inazio jailetan. Txosna gunean ohiko duen presentziari beste bat gehituko dio, gainera, 2009ko honetan: Erdi kalean irekiko duen tonbola.

1998an sortu zen Uztarria Kultur Koordinakundea eta bi urte beranduago, 2000.ean, jarri zuen lehen aldiz bere txosna San Inazio festetan. Iazko martxoan bukatu zuen bere ibilbidea koordinakundeak, eta orduetik Uztarria Komunikazio Taldeak eutsi dio haren lekukoari. 2008a aldaketa urtea izan zen Uztarriarentzat eta, besteak beste, saninazioetan ez zuen txosnarik jarri. Aurten berreskuratuko du bere lekua txosna gunean.

Aurtengo berrikuntza, ordea, tonbola izango da. Azpeitiar belaunaldi askorentzat ohitura izan da urteetan saninazioetako tonbola, Karitasen tonbola, hain zuzen ere. Karitasekoek urte askotan egin zuten lan herriko festetan, boletu mordoak salduz eta opari mordoak banatuz. Karitasek orain dela pare bat urte utzi zion saninazioetako bere jardunari eta, horrenbestez, herriko tonbolarik gabe joan dira azkeneko festak. Orain herriko beste talde batek, Uztarriak, jarriko du mar-



Opari erauntsia prestatu du Uztarriak tonbolarako. ||| **Xanti Rodriguez**

txan bere tonbola; tamainaz eta aurrikuspenez xumeagoa, baina ilusio eta asmo bertsuekin: festa girotzeko elementu bat gehitzea eta xoxak ateratzea, guztiaren beharra dago-eta garaiotan.

## Laguntzaile ugari

Guztiaren beharra eta askoren laguntza izan du Uztarriak tonbola antolatzeko. Erdi kalean jarriko du tonbola, Jabier Iruretak utzi dion lokalean, garai bateko Irulan Ateak dendaren tokian. Santio eguneko estreinaldiaren ondoren, uztaillaren 30ean eta 31n irekiko ditu atea tonbolak. Lokalaren jabeaz gain, Bertan Merkatarik Elkarteak, herriko zenbait enpresek eta hainbat jatetxe eta tabernek eman diote euren babesa Uztarriari: Añota, Auntxa, Azpeitia, Charles Chaplin, Eguzkitza, Eregi, Erreka, Etxe Zuri, Garoa, Hartzubia, Intz, Juanxto Txiki, Kiruri, Laratz, Larrañaga, Lau-Bide, Malats, Matxin, Mendizabal, Mikel Uria, Neg-uda, Nekane, Nerea, Ondarbidetxe, Ongi Etorri, Orbegozo, Orkatz, Osinazpi, Patxo, Pikua, Txokoa, Ukabi, Uranga, Urola, Zelai eta Zuhatz. Mila esker, guztiei.

Sari zerrenda luzea prestatu du Uztarriak, tonbolan banatzeko prest. Euro baten truke bi txartel eskuratu ahal izango dituzte tonbolara inguratzeko direnek. Sari-dunak batzuk eta sari gabeak besteak, baina ondo gordetzekoak hala ere. Izan ere, San Inazio egunean egingo duen azken zozketarako zenbakiak ere banatuko ditu. Ordenagailu eramangarria eta inprimagailua, lau laguntzako afaria eta hiru otarre banatuko ditu Uztarriak zozketa bidez. Animatu eta parte hartu tonbolan!\*



# Lanean, jairik jai

Festetan batzuk gozatuko badute, beste hainbatek lana egin behar izaten dute. Jairik jai, tiobiboekin egiten dute lan Sanz eta Soriano familiek. 📌📍 Ainitze Agirrezabala

**H**erri-herri, festarik festa, feriaz-feria, barrakak muntatuz eta desmuntatuz, txikien gozamenerako lanean, eguneroko bizitza karabanan eginez... Halakoa da ferianteen bizibidea, aurrera egiteko sosa aterako badituzte. Aitona-amonengandik seme-alabengana datorren negozioa da, familiako tradizioa. Tiobibo zaleentzat Azpeitia hitzordu garrantzitsua da: Sanjuandegiko jaiak aurrena, Saninazioak hurrena.

Soriano familiak autotokeekin egiten du lana eta Azpeitira 1982an etorri ziren aurrenekoz. Geroztik, hutsik egin gabe, urtero etorri dira. Sanz sendiak umeentzako tiobiboak ditu eta azken 50 urteetan Azpeitira zintzo etorri dira. Lehenago, ordea, aitona-amonak txurroak saltzetik bizi ziren eta Azpeitira etortzen ziren, 1936an aurrenekoz. Urte guzti hauetan, Azpeitiko ume asko nola kozkortu diren ikusi dute. Umetan karruselean eta autotoketan ibiltzen ziren neska eta mutil haiek orain beraien umeekin etortzen zaizkie.

## “Bizitza gogorra”

Jaio zenetik gaur arteko urteak feriaz-feria eman ditu Sanz familiako aita Jose Luisek. Une honetan sei barraka badituzte ere, bera jaio zenerako, 1950ean, bere gurasoek txurro postua zuten. “Gero, aita autotokeen pista erosi zuen eta haurtzaro osoa alde batetik bestera pasa nuen”. 22 urterekin gurasoei errelebua hartu eta tiobibo bat erosi



Jose Luis eta Juan Pablo Sanz aita-emeak.

zuen. “Gora eta behera mugitzen ziren hegazkintxo batzuk ziren, umeentzat. Garai bateko Uztarri tabernaren aurrealdean muntatzen genituen”. Zumarragara tiobiboekin joan zen batean, hango tabernan lanean ari zen zerbitzariarekin, gero bere emazte izango zenarekin, maitemindu zen. Gurasoen tabernako lana utzi, ezkondu eta senarraren bidari jarraitzea erabaki zuen Ana Maria Nuñezek. “Bi semeeren ama naiz eta ez dut haiek umeak

zireneko garaletaz hitz egin nahi”. Zentzu horretan, ferianteen bizitza gogorra dela dio Nuñezek: “Umeek aste osoa kolegioan pasatzen zuten eta igandetan ez nintzen haiek eskolara eramatera ere joaten. Ikaragarriko pena ematen zidan bi txikiak han uzteak. Gaur egun ez nuke halakorik egingo. Baina, orduan gazteak ginen, negozioa aurrera atera beharra genuen, ume txikiak...”.

Pablo Sanz, semeetan gazteena, ezkondu berria da. Bere emazteak Legazpiko dietetika zentro batean lana egiten badu ere, feria denboraldian egunero karabana erretiratzeko da. “Gurasoekin erdibana 65 metro karrikatuko karabana dut. Gurpildun etxea da, hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin”. Makina bat bider aholkatu izan zien amak semei eskolan saiatu eta ofizioaren bat ikasteko, etorkizun hobea izan zezaten. Amaren esanetan seme zaharrenari bizimodu honek “graziarik ez” dio egiten. “Gazteen honi, berriz, ikaragarri gustatzen zaio mundu hau. Feriante izateko ikasketak utzi zituenean ez kezkatzeko esan zigun irakasleak: lasa! Utz iezazozu semeari hogeitangileko enpresa eta ikusiko duzu nola aterako duen aurrera!”.

Urtero ibilbide bera jarraitzen dute: Zumai, Legazpia, Mutriku... Zarautzen uztailean eta abuztuan egoten dira eta Arrasaten urtarriletik otsailera. “Azpeitira urtero oso gustura etorri ohi gara. Jende jatorra dago, herrian ondo hartuak gara, estimatuak”, dio



## Bikoteen kabia

||| Etxerik eta autorik eduki ezean, goizeko ordu txikitik bikote askoren txoko bilakatu izan dira tiobiboak eta autotxoak.

“Bakioko jaietan, barraka itxi eta kale buelta bat ematera atera ginen emaztea eta biok. Bueltan, pistako autotxo batean bikote bat harrapatu genuen, erritmo bizian”, dio Jose Antonio Sorianok.

Sanztarren karrusela ere bikote bat baino gehiagorentzat aproposa izan da zirriak eginez goxo egoteko. “Behin baino gehiagotan sartu izan dira bikoteak gauz, tiobiboa estaltzen duen oihal artetik. Zaldiko maldikoen gainean oparitxoak-eta guzti bilatu izan ditugu. Dena sakon garbitu eta kitto!”, adierazi du Juan Pablo Sanzek.

Pablo Sanzek. Beste herriekin alderatuta, barraken inguruan antolamendurik onena duen udala Azpeitiakoa dela dio: “Hemen feriante guztiei dokumentazioa eskatzeaz arduratzen dira. Jende profesionala nahi dute”.

Krisia, alde guztietan bezala, Azpeitian ere nabari dela diote. “Hemen, hala ere, oso ondo egiten dugu lana. Udalak diru-laguntzak ematen dituenaz, tiket bakoitza 1,50 euro kostatzen da. Espainiako edozein lekutan 2,50 kostatzen da. Bezeroen artean okerrenak gurasoak direla dio: “Behin ama bat etorri zitzaigun bere semeak gure tiobiboe-tan hortza puskatu zuela modu txarrean kexatuz; bitartean, kalean erorita puskatu zuen”.

### Erreleboa ziurtatuta

“Bolantea eskuetan” zuela jai o zela dio Jose Antonio Sorianok. 55 urte bete ditu aurten, baina Soriano familiak 57 urte daramatza autotxoekin lanean. Azpeitira aurrenekoz, 1982an etorri ziren eta geroztik ez dute hutsik egin. “83ko uholdeak ere ezagutu genituen”, dio. Azpeitiarrak “oso atseginak” direla eta herria bera urte guzti hauetan asko aldatu dela dio. “Bizi-kalitatea asko hobetu dela nabarmena da. Kanean mutil gazteek gidatzen dituzten BMW-ak ikusi besterik ez dago”.

||| “Azpeitian feriante guztiei dokumentazioa eskatzeaz arduratzen dira. Jende profesionala nahi dute”

**PABLO SANZ**

**Sanz tiobiboak**



David Soriano eta haren aita Jose Antonio zutik eta behean, makurtuta, William Kit txakurrarekin.

Bi alaba eta semea ditu Jose Antonio Sorianok, “baina neskek ez dute negozio honetaz ezer jakin nahi”. Nolanahi ere, momentuz sorianotarren ofizioa ez da galduko. Erreleboa ziurtatuta dute. “Lau urte nituenetik garbi nuen honetatik bizi nahi nuela”, adierazi du David Soriano semeak. “Hamahiru urterako trailerrarekin maniobrak egiten uzten zidan aitak”. Aitari esanetan, bi alabek egin duten gisan, nahiago luke semeak ere ofizioran bat ikasi balu. “Baina umetatik hain garbi zuen... Bera honetan gustura bada, gu ere bai”.

Haurtzaro “gogorra” izan duela dio semeak, eguneroko bizitza ezin baitzuen gurasoekin, familian egin: “Amonarekin bizi nintzen Nageran. Gauero, ohera joatean, negar egiten nuen. Ostiralero aita etortzen zitzaidan bila eta feriara eramaten ninduen, igande gauerarte”. Ume bat festarik-festa eurekin ibiltzea “ezinezkoa” zela dio aitak.

Jose Antonio Sorianoaren emazteak gurasoen okindegian egiten zuen lana. Nagerako festetan bere senarra izango zena ezagutu zuen arte. “Ezagutu, 18 urterekin ezkondu eta festaz-festa etorri zen nirekin. Hasieran gogorra egin zitzaion. Umeak amonarekin uztean ere gaizki pasatzen zuen”.

Sorianotarrek jarraitzen duten ibilbilbidea Espainiara ere zabaltzen da: Errioxara, Valen-

tziara, Huescara... Krisia nabaritzen dela diote, “leku batzuetan gehiago, besteetan baino”. Inguru hauetan lana egiterako orduan eguraldiak zeresan handia duela dio Jose Antonio Sorianok: “Eguraldi eguzkitsurik ez dugu nahi, jendea hondartzara joaten baita. Euria ere ez. Onena zerua lainotua”. Autotxoketan buelta bat euro eta erdi kostatzen da, eta ez dute protestatzen. 1950ean tike bakoitzak bi pezeta balio zuen”.

Urte guzti hauetan makina bat pasadizoren lekuko ere izan da Soriano familia, Jose Antoniok kontaktatzen duenez: “Saninazio batzutan, parrandazale batzuek auto bat pistatik atera eta Berdura plaza atzeraino eramane zuten bultzaka. Goizeko 05:00ak aldera udaltzaingotik deitu zidaten abisua emateko. Gruan ekarri zidaten bueltan”.\*

||| “Saninazio batzutan, auto bat pistatik atera eta Berdura plaza atzeraino eramane zuten bultzaka”

**JOSE ANTONIO SORIANO**

**Soriano autotxoak**

# uztarria

hiri AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

**eguna:**  
uztailaren  
25-30-31

**ordua:**  
12:30-15:00  
18:00-00:00

**prezioa:**  
2 boleto  
euro batean

# tonbola

**zozketa azken egunean:**

- ordenagailu portatila eta inprimagailua
- 4 laguntzako afaria
- hiru otarra

**opariak:**

- haurrentzako bizikletak
- bi laguntzako 30 afaritik gora
- talasoterapia zirkuitoa
- MP3ak...

**lekua:**  
erdi kalean





||||||| jaione unanue |||



||| leire goenaga |||

## Festak pil-pilean

**J** **Jaione Unanue.** Izan al dun aukerarik festetako programari begirada bat botatzeko?

**Leire Goenaga.** Nahiko gainerik. Aurtengoa badinagu nahiko agur!

**Jaione.** Gustura ibili naun ba argazkiak ikusten. Festetako gogo eta dena piztu zaidan kolpera.

**Leire.** Bai, oporretara joan aurretik egun ederrak pasako dizkinagu.

**Jaione.** Tartean, gainera, herriko hainbat talde, eragile eta norbanakoren argazkia eta agurra irakurri dizkinat. Ez al dien saninaziyuei beste kolore bat ikusten, argazkiei begiratu besterik ez zagon!

**Leire.** Egia esan, gero eta herriko talde gehiago ikusten ditinat jaiak antolatu eta parte hartzen, horrela lortuko din herriak berak nahi dituen festak antolatu eta gozatea.

**Jaione.** Ikusi besterik ez zagon zenbat gaztek hartzen duen parte herri bazkarian, jolasetan... laz, bakailao txapelketak ere izan zinan nahikoa arrakasta.

**Leire.** Hasi al haiz bakailaoaren errezeta ikasten?

**Jaione.** Aurten animatuko gaitun, lehengo urtean nortzuk irabazi zuten ikusita ez dun zaila izango. Ia Patxi iristerako pil-pilean daukagun!

### Alfonbra gorria

**Leire.** Jaso omen din bai gonbidapena gure herrira etortzeko, baina ez zaidan iruditzen Azpeitian ongi etorria izango denik. Hala ere, batzuk saiatuko ditun lehendakari berriari alfonbra gorria jartzen.

**Jaione.** Kaleak garbitzeko agindu duten diru

||| **LEIRE.** “Hasi al haiz bakailaoaren errezeta ikasten?”

||| **JAIONE.** “Lehengo urtean zeintzuk irabazi zuten ikusita ez dun zaila izango”

partidatik zerbait bidaliko diten herrira seguruenik. Hau izango dun lehendakari berriaren lanpostuak sortzeko plana. Txapel gorri lepo kaleak garbitzeko.

**Leire.** Ba begiak itxi beharko ditin nahi ez duena ez ikusteko. Ez al din hobe ez etortzea?


**Jaione.** Badinagu hurrengo egunetan zer egin. Baina baita ere zer gozatu, parte hartu eta ondo pasatu!

**Leire.** Ea txupinazoan Baigera eta Gazte Asanbladako hauek ez diguten plaza leheritzen!

**Jaione.** Baltsa jaitsieran jarri zuten giro erdia jartzen baldin baditen, ni konformatzen naun.\*



# Inazioaren arimara bisita

‘Arimadun bisitaldiak’, bisita gidatuen programa, jarri dute abian Loiolako santutegiaren baitan. Zerbitzu iraunkorra gaztelaniaz da; euskaraz nahi izanez gero aurrez eskatu behar da.  Ainitze Agirrezabala

**L**oiolako santutegiaren baitan *Arimadun bisitaldiak* izeneko bisita gidatuen programa martxan da. Joan den uztailaren 15ean hasi eta abuztuaren 15era arte luzatuko da.

Bisitaren bidez bi ikuspegi jasotzeko aukera dago: kontakizun historikoa eta artistikoa. San Inazioaren bizitzaz, Jesusen Lagundiaren eta Loiolako santutegiaren beraren historiaz ikasteko aukera eskainiko dute.

Bisita gidatuen programa Jesuiten Gunea proiektuaren baitan dago eta Loiola bisitatzen dutenentzat edukiak aberasten eta borobiltzen joatea da asmoa. Egitasmoak, Jesusen Lagundiak Loiolako Probintzian izandako esperientziaren eta ondarearen berri ematea du helburu.

Erreserba Loiolako santute-

## DATUAK

**Zer.** Inazioaren arimara bisita gidatuak. **Eguna.** Abuztuaren 15era arte (larunbata). **Ordua.** Asteartetik igandera: 10:15, 12:00 eta 17:00. Astelehenetan jai. **Tokia.** Loiolako Santutegia.

gian bertan egin behar da, bisita hasi baino hamar minutu lehenagotik. Telefono zenbakia: 943 025000.

## Euskaraz, aurrez eskatuta

Bisita gidatuen zerbitzu iraunkorra gaztelaniaz da. Euskaraz, frantsesez eta ingelesez egiteko aukera ere eskaintzen dute, baina hiru kasu horietarako aurretik eskaera egin beharra dago.

## INAZIOAREN ARIMARA BISITAK

# 75

**minutu.** Bisitaren iraupena ordu eta laurden ingurukoa da. Abuztuaren 15era arte emango dute zerbitzu hau.

# 3,5

**euro.** Hamalau urtetik gorako haurrek bisita gidatua doan dute; helduek, berriz, hiru euro eta erdi ordaindu beharko dute.\*

## BESTERIK

### 1 Ume jolasak Urrestillan

Gaztetxoek ez dute uda garaian aspertzeko astirik edukiko. Urrestillako plazan neska-mutil kozkorrentzat hainbat jolas eta ekintza izango da eguerdi partean.

**Eguna.** Abuztuak 23 (igandea). **Ordua.** 12:00 **Tokia.** Urrestillako plaza. **Antolatzailea.** Udaleko Gazteria Saila.

### 2 Umeentzat ekintza bereziak

Hainbat joku eta ekintzatan parte hartuz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

**Eguna.** Irailak 20 (igandea). **Ordua.** 12:00 **Tokia.** Udaletxe arkupeak. **Antolatzailea.** Udaleko Gazteria Saila.

### 3 Eizmendi auzoko festak

Sanmiel jaiak ospatuko dituzte datorren hil bukaeran, Eizmendi auzoan. 12:00etan meza nagusia izango dute eta, ondoren, herri bazkaria. Arratsalde partean, berriz, bertsolarien jardunaz gozatzeko parada izango da. Trikitilariak ere ez dira faltako erromeria giroa jartzeko. Festarako eta dantzarako gogoz denak, beraz, egunpasa polita du Eizmendin.

**Eguna.** Irailak 29 (asteartea). **Ordua.** Egun osoa **Tokia.** Eizmendi auzoa. **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.\*

**Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



Loiolako santutegira egindako bisita gidatuko hainbat partaide. **Nerea Uranga**



## Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

## Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
  - Logotipoa, papertegia...
  - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
  - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
  - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
  - Prentsa bulego lanak
  - Komunikazio kanpainak
  - Mailing-ak...



goiko kalea 5, 3A • tel.: **943 08 06 88** • 20730 azpeitia • e-posta: eregi@eregi.net

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
**Ekain**  
Larrialdiak:  
943.15.16.40  
ALBAITARI KLINIKA


**PEUGEOT**  
**AIZPURU AUTOAK**  
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)

 **domusa**


"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"  
**URBISTONDO**  
**MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **kutxa**

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



HITZ GEZIDUNAK

|   |                      |                  |                   |                 |                     |               |                        |  |                   |
|---|----------------------|------------------|-------------------|-----------------|---------------------|---------------|------------------------|--|-------------------|
|  | Bideko zaindaria     |                  | Urratsak, pausoak |                 | Saskiak egiten ditu |               | Alegiazko emakume      |  | Ergel             |
|   | Jatekoak, hazkurriak |                  | Patu, asturu      |                 | Toka, goazen        |               | Idi, hitz elkartzeetan |  |                   |
|   | IRUDIAN              |                  |                   |                 |                     |               |                        |  |                   |
|   |                      |                  |                   |                 |                     |               |                        |  |                   |
| Zabaldi   |                      | Pl., arrain mota |                   |                 |                     |               | Titanioa               |  |                   |
| Negoiazteak   |                      | Tontor           |                   |                 |                     |               | Gizon izena            |  |                   |
|   |                      |                  |                   |                 |                     |               |                        |  |                   |
| Teilatuko ohola   |                      |                  |                   | Egiten ari gara |                     |               |                        |  |                   |
| Putre   |                      |                  |                   | Herri handi     |                     |               |                        |  |                   |
|   |                      |                  | Isekazko keinua   |                 |                     |               |                        |  | Bizkaieraz, bikea |
|   |                      |                  | Her. hizk., zer   |                 |                     |               |                        |  |                   |
| Ilunduta  |                      |                  |                   |                 |                     | Hori argi     |                        |  |                   |
| Adunako   |                      |                  |                   |                 |                     | Praseo-dimioa |                        |  |                   |
|   |                      |                  |                   |                 | Gizon izena         |               |                        |  |                   |
|   |                      |                  |                   |                 | Bokala              |               |                        |  |                   |
| Irekitzera behartua   |                      |                  |                   |                 |                     |               |                        |  |                   |

 **Egilea:**  
**Luma**


\* Gipuzkoako hiriburua

HITZ GURUTZATUAK

**EZKER ESKUBI.** 1. Bakoitzak hamabost. 2. Erbioaren ikur kimikoa. Oroimenean, buruan. 3. Amataru. Hektarearen laburtzapena. 4. Jardun, ari izan. Gauza, objektu, elementu. 5. Biba! Diagnosian erabiltzen den psikologiako proba mota. 6. Eskaini. Jatekoa. 7. Hizki grekoa. Hortzetako eritasun, esmaltearen eta dentinaren hondatzeak eragina. 8. Zaunka. Istu, txistu, listu. 9. Zorion betean.

**GOITIK BEHERA.** 1. Garrasi eginez, oihuz. 2. Hanka giltzatuak eta kitinazko kanpo eskeletoa dituen animalia orno-gabeen phylum. 3. Kontsonantea. Ipar Euskal Herrian, zara. Ez eme. 4. Harribitxi mota. Akuri. 5. Errota, eihera. Oihan. 6. Eguneroko jaki. Txori mota. 7. Begira. Eskuz edo arkuz jaurtikitzen den arma. Bokala. 8. Nahasmendua. 9. Senidetasun.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 1 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   | ■ |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   |   |   |   |   |   | ■ |   |   |
| 4 |   |   |   |   |   | ■ |   |   |   |
| 5 |   |   |   |   | ■ |   |   |   |   |
| 6 |   |   |   | ■ |   |   |   |   |   |
| 7 |   |   | ■ |   |   |   |   |   |   |
| 8 |   |   |   |   |   |   | ■ |   |   |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |





**SOLUZIOAK**

HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | I | Z | A | R | A | I | K | E | R | I | R | • |
| I | R | T | E | P | • | R | A | N | U | D | A | • |
| U | R | A | L | • | K | I | N | U | L | I | • | • |
| • | A | N | I | K | A | H | I | • | A | I | S | • |
| U | G | I | G | A | D | • | A | T | A | L | • | • |
| K | A | O | I | Z | A | Z | O | G | E | N | • | • |
| I | T | • | K | A | K | R | E | P | • | Z | • | • |
| A | I | A | S | T | O | N | O | D | • | • | • | • |
| K | A | I | A | G | A | Z | I | G | B | I | Z | • |
| • | M | • | S | • | O | • | B | • | • | • | • | • |



HITZ GURUTZATUAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| N | A | E | N | O | I | R | O | Z | • | • | • | • |
| U | T | • | S | I | U | A | D | A | • | • | • | • |
| S | E | I | R | A | K | R | O | • | • | • | • | • |
| A | K | Z | A | B | • | A | P | O | • | • | • | • |
| T | S | T | • | A | G | O | R | A | • | • | • | • |
| A | I | G | A | • | U | T | A | R | I | T | • | • |
| A | H | • | I | L | A | Z | I | T | • | • | • | • |
| N | A | O | G | O | G | • | E | R | • | • | • | • |
| A | N | A | S | O | A | B | A | M | A | H | • | • |

**ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?**




|||ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Irailak 18 (ostirala) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe. Azpeitia |||IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||ZER DAGO SOBERAN ALA FALTAN ADIERAZI.

|||ZURE IZEN-ABIZENAK

|||TELEFONO ZENBAKIA

**UZTARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA**

ZEIN DA?



PEDRO OTAEGI AKTOREA



IRABAZLEA



Marikarmen Arozena Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 109. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta eraman du etxera, sari gisa. Argazkian, Marikarmen Arozena, saria eskuetan duela.

**Odrizola Ardoetan**

**Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008**  
GETARIKO ELKANO JATETXKO  
ARDO KARTAN

Urteko ardo berria, bodegako mahatsik onenarekin egindakoa.

## Maionesa

**D**uela urte batzuk, gozagarri hau jatetxeetan eta tabernetan zerbitzatzea debekatu zuen, baldin eta etxean egindakoa bazen. Elikagaiak hesteetan eta sabelean eragindako gaitz guztien errua bere gain botatzen zuten, baita salmone-llarena ere. Arrazoikoa iruditu zitzaidan erabakia, baina burutzeko modua ez. Zer dela eta bereizi behar ziren familia eta bezeroak? Erabakiaren araber, maionesa etxean egitea uzten zitzaien jatetxe-etako nagusiei etxean bertan zerbitzatzekotan, baina ez tabernako mostradorean.

Gozagarri honen oinarria arrautza gordina eta olio dira. Salmonella ugari dago landetxe edo granjetan. Mikroorganismo hauek sabeleko arazo askoren eragileak dira. Beren hazkunde likidoa arrautzak eta olioak osatzen dutena da, eta sukaldeko tenperaturan sei bat ordu irauten badu milioika izateraino ugaltzen da. 100 gramo maionesak 800 kaloria ditu, hamar bat arrautzak adina.

Arazo hau desagertu egiten da frijitutako edo egositako janarietan. Beraz, maionesa prestatu berria kontsumitu behar da eta erabiltzen ez dena bota. Industrietan egiten den ontziratutako maionesa kontsumitu daiteke, esterila baita, nahiz eta ni pertsonalki horren aldekoa ez izan.\*



Julian bereziartua

## ALAITZ ETA MIKEL ALBERDI serigrafoak



### 1. Ohiko eskaera?

Kamisetak serigrafiatzea.

### 2. Lanik bitxiena?

Mendizabal erretegiko harrijasotzailea margotzea.

### 3. Kolorerik erakargarrienak?

Primarioak ez direnak.

### 4. Lanik gehiena noiz?

Udan, festa eta ekitaldi gehiago izaten delako.

### 5. Helburu nagusia?

Sortu dugun Blai marka Euskal Herrian zabaltzea.

### 6. Zer lan egitea gustatuko litzaizueke?

Bi teknikak erabiliz dimentsio handiko zerbit.

### 7. Zer material duzue lanerako gustukoena?

Estanpazioan kalitate oneko arropa; errotulazio kasuan erakuslehoak.

### 8. Bertute bat?

Marrazteko eskua izan eta ordenagailua maneiatzea.\*

Ainitze Agirrezabala

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak  
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,  
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak  
|||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero 7.000 orrialderen bisita  
|||oharra: uztarria.com abuztuan oportetan izango da







# ondo pasatu saninazioak!



CONSTRUCCIONES  
**ANTZIBAR**  
ERAIKUNTZAK

## Urola Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea

Azpeitia Tel: 943 812666


Ziklomotor lizentzia eta  
gidabaimen guztiak



Ondo pasatu  
Saninazioak

# Pilotari izatea amets

Madrilen 25 urte inguru  
igaro ditu erraketista  
profesional, puntako  
pilotariekin  
jokoan.

 Ainitze Agirrezabala



# U

metatik pilotarako zuen ametsa bete izan ez balu, sekula ez zela gustura bizi izango esanez hasi da solasean. Gloria Agirre (Aizarna, 1945), pilotaren munduan *Txikita de Aizarna* goitizenez ezaguna, hemezortzi urte bete orduko joan zen Madrilerera, frontenisean debutatzera. Espainiako kapitalera egindako saltoa, ordea, ez zitzaion gutxi kostatzen. Egoskorra zenari eskerrak. "Hiru urte pasa ziren etxean lata ematen hasi eta aitak baimena eman zidan arte".

Eskuetan pilota zuela munduratu zela esan

daiteke. Aita pilotari afizionatu sutsua zuen, eta jaio ere Aizarnako frontoiaren ondoko etxean jaio zen, Puertekuan. "Orduan, gaur ez bezala, ez zen kiroldegirik, eta egun santu guztia frontoian pasatzen nuen. Neska koskorra nintzenetik pilotarako sekulako afizioa nuen eta auzoko neskei ez ezik, mutilei ere irabazi egiten nien nik".

*La voz de España* egunkarian Madrilgo emakume erraketistei buruzko kronikak irakurri egiten zuen amets Agirrek. "Marisol kantaria eta garaiko hainbat artista eta torea-

tzaille erraketistei sariak ematen agertzen ziren argazkietan. Handi ikusten nituen neska haiek eta profesioletara heldu eta haien bidea egitea nuen amets". Madrilerako bidaiaz amari ezer esateak beldurra ematen ziola-eta, aitari berotzen zion burua. "Haize haiek pasako zitzaizkidala-eta, ez zidan kasurik egiten ordea". Hiru urte temati pasa ostean, azkenean, Madrilgo frontoiko jabeari, Alfonso Anabitarteri, eskutitza idatzi zion: "Pilotarako nuen afizioaz idatzi nion. Ondo moldatzen nintzela eta profesional izateko doteak



banituela. Madriler a joan nahi nuela, baina zaila egiten zitzaidala ere idatzi nion". Agirre ez zen atzera geratzen zen horietakoa. "Oso atsegin erantzun zidan. Beraneatzera Hondarribira etorri ohi zela eta berak hitz egingo zuela nire aitarekin". Zuzen asko bete zuen emandako hitza. "Erraztasun guztiak jarriko zizkidala esan zion aitari eta neska pilotari euskaldun batekin hartuko nuela ostaru".

Madriler a jauzia eman aurretik, ordea, Tolosan aritu zen entrenatzen. "Astean hirutan joaten nintzen, komeria ederrak ibilita. Aizarnatik Donostiara autobusez, han trenea hartu eta Tolosara. Eta, berriro buelta". Gustuko lekuan, ordea, ez da aldaparik izaten. "Kontua serio hartzen nuela eta sekulako afizioa nuela jabetu ziren. Hala, balekoa eman zidaten".

### Ikasteko aprobetxatu

Mailetak egin eta Madriler a eramango zuen trenea hartu zuen. 1964a zen. "Madrilen pilotan jokatzear gain, denbora behar bezala aprobetxatzeko aholkatu zidaten etxean. Batxilergoa egin eta farmazia ikasi nuen. Poz ederra hartu zuen aitak, ikasketak haien berri jakitean. Aizarnan geratu izan banintz, gaur ez nuen unibertsitateko ikasketarik izango". Hasitakoa bukatzea nahikoa kosta zitzaioala dio: "Unibertsitatean joan arte, batxilergoan, ondo moldatu nintzen. Baina, gero, pilotarekin batera ikasketetan aurrera egin behar eta... Karrera zaila aukeratu nuen nonbait". Gaur egun, Azpeitiko Eizagirre botikan egiten du lana.

Joan berritan, egunero izaten zituen partidak. "Sei partidako jaialdiak izaten ziren eta astean egun bat libratzen genuen. Gero, mailaz igo eta partida nagusiak jokatzeko hastean astean hiru partida jartzeko eskatu nuen". Hainbat neska eta mutilentzat Mexikora, Mia-



1. Joxeantonio Etxaide *Legoia*, Gloria Agirre *Txikita de Aizarna*, Jabier Lizaso *Ipintza* eta Benito Mujika, Zestoako Santakutz jaietan jokatutako partidari. 2. *Gloria* eta *Txikita de Aizarna*.



mira edo Habanara salto egiteko tranpolina izan zen Frontón Madrid. "Duda-mudan egon nintzen Mexikora joan ala ez. Kontratua egiteko aukera izan nuen, baina bizitzako gora-beherak tarteko, salto hura emateak halako zera bat ematen zidan... Ez nintzen joan".

## Desafioa Zestean

||| Santakutz jaietan izan zen, hamahiru urte besterik etzituela. Zestoako alkate Fidel Lizaso etxera joan omen zitzaion, partida antolatu zutela esanez. "Aizarnako Benito Mujika nuen bikote; Zestoako Jabier Lizaso eta Jose Antonio Etxaideren kontra". 12-7 galdu zuten. "Frontoia bete jende eta ni negarrez. Nire lehen erraketa orduantxe oparitu zidan Fidel Lizasok".

Errebatxa etorri zen gero, Aizarnan. "22-18 irabazi genien. Hura zen poza!".

Pilotalekuan sekulako giroa izaten zela go-goan du Agirrek. "Frontoia ez zen handia, baina dena betetzen zen: famosoak, militarrik... etortzen ziren gu ikustera. Pretendientek asko genituen. Artekariak ere baziren eta diru asko jokatzeko". Aurrean jokatzeko zuten Agirrek eta frontoian jokalariek gehienak euskaldunak zirela dio: Txikita de Anoeta, Agustina, Irura, Soroa... Baita katalanak, madrildarrak, andaluzak eta valentziarrak ere.

Pilotan hilero soldata jasotzen zuten: "Hasieran, ostarua justu-justu ordaintzeko lain irabazten nuen. Gero, partida nagusiak jokatzeko jornal polita nuen. Kinielak ere jokatzeko genituen, eta irabaziz gero, prima jasotzen genuen. Ikasketak neronek ordaindu nituen".

Pilotaren urrezko garaia bukatzean zela heldu arren Madriler a, puntako pilotarekin aritu zen jokoan. 25 bat urte egin zituen profesionaletan. Pilota gainbeheran etorri eta frontoia ixtean itzuli zen jaiotetxera.\*

**KIRURI**  
  
**J A T E T X E A**  
 Loiola hiribidea, 24  
 LOIOLA - AZPEITIA  
 Tfnoa.: 943 81 58 08  
 Faxa.: 943 15 03 62

**argi jokatu**  
 zure publizitatearekin  
  
**uztarria**  
 Azpeitiko erakusleho handiena

**OMINO PARI**  
 Ezkontza, bataio, lehen jaunartze eta era guztietako opariak eta gonbidapenak  
  
**OMINO PARI** Santiago kalea, 14  
 699 325 839

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen      | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB     | 15 71 61 |
| INEM                 | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 0837 80  |
| Aitonena I           | 81 51 71 |
| Aitonena II          | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 02 51 91 |
| Ingurumen Etxea      | 81 24 48 |

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 26an izango dute hitzordua, 18:00tik 21:30era, anbulatorioan.

|                           |          |
|---------------------------|----------|
| Hautetsi Independentistak | 15 72 00 |
| EA                        | 81 00 11 |
| EB-Aralar                 | 15 72 00 |

### SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

### KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Euskara Patronatoa   | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| AEK                  | 15 10 89     |
| EHE                  | 15 10 89     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 8165 08      |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

### IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 8163 80  |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

### BESTERIK

|                                     |           |
|-------------------------------------|-----------|
| UGLE (Urolako gay-lesbian.)         | 273 posta |
| Xoxoteko aterpea                    | 58 10 07  |
| Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua |           |

### ALDERDI POLITIKOAK

|     |          |              |
|-----|----------|--------------|
| EAJ | 81 55 70 | 943 08 06 88 |
|-----|----------|--------------|

## FARMAZIAK (ABUZTUA)

### EGUNEZ

|                      |                     |                                     |                      |
|----------------------|---------------------|-------------------------------------|----------------------|
| 1-2-5-7-11-13        | 3-8-9-12-14         | 4-6-10-15-16-17-19-21-24-27-29-0-31 | 18-20-22-23-25-26-28 |
| Aranburu (Azpeitia). | Alberdi (Azpeitia). | Eizagirre (Azpeitia).               | Jacome (Azpeitia).   |
| 943 811350           | 943 815974          | 943 811274                          | 943 080258           |

### GAUEZ

|                      |                     |                       |                    |                         |                   |
|----------------------|---------------------|-----------------------|--------------------|-------------------------|-------------------|
| 1-2-5-7              | 3-8-9               | 4-6-17-19-21-31       | 18-20-22-23        | 10-13-14-15-16-25-26-27 | 11-12-24-28-29-30 |
| Aranburu (Azpeitia). | Alberdi (Azpeitia). | Eizagirre (Azpeitia). | Jacome (Azpeitia). | Gisasola (Azkoitia).    | Jaen (Azkoitia).  |
| 943 811350           | 943 815974          | 943 811274            | 943 080258         | 943 851235              | 943 850660        |

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## TURISMO BULEGOAK.

Uda sasoiari Azpeitira inguruzten direnek herrian ikusi dezaketenaz inforantzeko turismo bulegora jo dezakete. Loiolako abuztuan eta irailean izango da zabalik; herrigunekoak, berriz, abuztu osoan.

## GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak



# BERNABE ARANGUREN

hogei urtean Iruñeko entzierroan lasterkalari

“BELdurrik ez zienat zezenei; errespetua handia”

Aurtengoarekin, hogei urtez segidan irten du Iruñeko entzierroan. Zezenen aurrean lasterka egitea berezia omen. 📎 A. Agirrezabala

**N**olatan duk entzierroan lasterka egiteko ohitura?

Nafarroako Cabanillas herrikoa dinat ama eta umetan urtero oporretara hara joaten gintunan. Zezena non, hara mugitzen gintunan: Iruñera, Zaragozara, Faltzesera... Orain emazteak, bi alabak eta laurok Tuterako festak bertan igarotzen ditinagu eta abuztuan kilometro asko egiten ditinat, zezenera.

**Entzierro guztietan ateratzen al haiz?**

18 urte nituela atera nindunan aurrenekoz, eta harrezkero urtero, egun bakar batean ere huts egin gabe atera naun.

**Entzierroan zer tartetan egiten duk korrika? Zenbat metro?**

Telefonica bukaeran hasten naun, eta 200 bat metro egiten ditinat korrika.

**Etzetik joan-etorrian ibiltzen al haiz?**

Iruñean izeba bat bizi dinat eta gau bat haren etxean pasatzen dinat. Gainontzean, goizero seieta Mikel Arrieta *Rubio*-rekin joaten naun, autoan. Iruñean autoa ukuilu ondoan uzten dinagu beti eta 07:00etarako ibilbidean izaten gaitun. Entzierroa bukatzean gosaldug egiten dinagu, 05:30ean jaikitzean, ner-

bioak tarteko, ez dinat-eta apenas gosaltzen. 09:30ak aldera iristen gaitun Azpeitira.

**Etzekoek zer esaten dituk?**

Bazekiten alferrik dela niri jardutea eta igual aterako naizela entzierroan.

**Eztei bidaia ere ondo antolatu huen...**

Andreari esan nionan aste bat non pasatu nahi zuen aukeratzeko, beste astea non pasatu nik erabakiko nuela. Astebete Tenerifen egin ginan; bestea, Iruñeko hotel batean.

**Trantze handiak izan al dituk?**

Orain bi urte Telefonikako bihurgunean irrist egin, erori eta hiru zezen nire ondoan erori hitunan. Jaiki eta bakean joan hitunan. Zer pentsatua eman izan didaten irudi gogor asko ikusi ditinat. Baina, berriro iriten naun. Beldurrik ez zienat zezenei; errespetua bai, handia. Hitzez esatea zaila dun, baina sentsazio berezia dun zezen aurrean lasterka egitea.

**Nola aldatu da entzierroa urteotan?**

Oraingo aldean lehen askoz ere jende gehiago ateratzen zunan. Orain kontrol handiagoa zagon eta, gaupasa egindako bakarren bat geratzen bada ere, mozkorrak ibilbidetik ateratzen dititzen.\*



1., 3. Iruñeko entzierroan lasterka. Borobilen barrukoa da Aranguren. 2. Sokamuturrari eskainitako eskultura alboan duela.



# Korsika

**H**errialde guztietan, toki onak badira... Korsika oso uharte zaila da, menditsua, eta azaleraren %15 baino ez da nekazariak erabiltzeko modukoa, hau da, behar bezain zelaia da edo bertara iristeko moduan dago. Erein daitekeen lurra are eta eskasagotu zen 60ko eta 70eko hamarkadetan, Aljeriatik kanporatu zituzten oin beltz-frantziar paramilitar eta legionarioak-, aberastuak uhartean bizitzen jarri eta mahatsa landatzeari ekin ziotenean.

1979an, Parisen laguntzaz, kolono haietarik 378k uhartean ekoizten zen ardoaren %90 beren eskuetan zuten. Korsika bertako 4.000 nekazarik, berriz, gainerako %10 zuten. Frantziako estatua, bestalde, turismoa sustatzen hasi zen irlan, eta bertako etxaldek orduan eta lur gutxiago izan zuten eta, lantegietan lan egiteko lanik gabe, goi mailako ikasketak egiteko modurik gabe, gazteek Frantziara emigratu behar izan zuten. Korsikar natiboak zeharo bazterrean geratu ziren, bazterrean beraien hizkuntza eta ohiko bizibideak. 1900ean 300.000 korsikera hiztun zirenak, 120.000 ziren 1970ean.

Egoera aldatzeko asmotan, korsikar abertzaleak frantses aditz bat erabiltzen hasi ziren: *plastiquer*, OASek (Armada Sekretuaren Erakundea) 50eko hamarkadan Aljerian boladan jarri zuen aditza, alegia, bomba bidezko atentatuak... 1965ean, abertzaleak bonbak jartzen hasi ziren kolono berrien etxaldeetan, baita SOMIVAC agentziaren bulegoen kontra ere, oin beltzen alde modu diskriminatorioan lotsagabe jarduten zuelakoan. 1968. urtean, Frantziaren beste zeregin batzuetan ari ziren bitartean –nahikoa lan Maiatza aurretik, eta berdin ondoren–, korsikar ekintzaileek indar handiko hainbat tona leherkari eta ehunka detonagailu lapurtu ondoren tentsio handiko argindar dorreak, oin beltzen etxebizitzak eta Italiatik industri hondakinez beteta zetozen itsasontziak zartatu zituzten.



|||||||miel a. elustondo|||

|||Bazterrean geratu ziren korsikarrak. 1900ean 300.000 korsikera hiztun ziren; 1970ean 120.000

1973. urtean, Fronte Paisanu Corsu di Liberazione FLNCK agiri bat kaleratu zuen, garai bateko lur komunalak monopolizatzen zituzten kolonoak kanporatzeko eskatuz. Paris FLNCK aintzakotzat hartzen hasi zen, IRA berri bat gertatuko ote zen beldurtuta. 1974. urteko urtarrilean, erakundeak lehendabiziko "gau urdin" famatuetakoa bat ospatu zuen: momentu berean leherrarazi zituzten bederatzi bomba Ajaccio, Bastia eta Ghisonaccian.

## 800 bonbak eztanda

1979an, FLNCK turismo agentzien kontra eraso zuen Parisen bertan. 1981ean, lehergailu batek ia jo zuen Frantziako presidente Giscard d'Estaing. 1982an, le sommet du plasticage kanpaina abiarazi zuen, benetako ofentsiba. 800 bonbak egin zuten eztanda gobernuaren bulego, jatetxe, hotel, Club Méditerranée, frantziarren bigarren etxebizitza, polizi etxe eta gainerakoetan...

Gure lagun Luixek ibili ohi zuen elastiko gorria –"Korsika", paparrean–, ikusi dut bart ametsetan...\*





# Ondo pasatu festak!



**SERRERIA LARRAÑAGA, S.L.**

Oñatz Bidea, z/g.  
Tels.: 943 81 46 28 - 943 81 60 71  
Fax: 943 81 68 66

[www.serrerialarranaga.com](http://www.serrerialarranaga.com)  
E-mail: [info@serrerialarranaga.com](mailto:info@serrerialarranaga.com)  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



# % 30

# % 50



## 2009 UDA MERKEALDIAK

Santi Iazkano Kirolak  
Azpeitia 943 81 16 50

**Ukabi**  
informatika

TEL.: 943 15 01 01  
Salbe auzoa, 39 behea  
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobek  
zure aurrezkiak salbu  
dira gurean

### LG MI97WD-PZ

- Pantaila TFT
- TDT 19"
- 1366 x768
- 35 watio altabozak
- 5ms
- 2xHDMI, 1xDVI-D, 1xVGA



**169 euro**  
b.e.z. barne

### LG M227W D-PZ

- Pantila TFT
- TDT 22"
- 1920 x1080
- 55 watio altabozak
- 1080p (FullHD)
- 2xHDMI, 1xDVI-D, 1xVGA

**257 euro**  
b.e.z. barne



**innovadental**

*jarri zure familia eskurik onenetan!*

**ONDO PASATU FESTAK!**

**Inplantologia eta estetika  
hortz-klinika**

**➔ anbulatorioaren ondoan ←**

José de Artetxe, 5 · Tlf.: **943 02 59 55**  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)